UDAKO KURSILLOAK:
Noiz, non, nork...
(Irakasle Elkartea, ICE,
Adarra, Rosa Sensat...)

# URRATS

UR ATS

URRA S

U RATS



# URRATS

euskal pedagogia 1.zenbk. **ekaina 79**

225.– 6782
UR027/6-4
11-6-79

zabaltzen

# URRATS

EGILEAK:
Irakasle talde bat
(Irakasleen Elkartea)

HELBIDEA:
Sto. Tomas Lizeoa
Polígono Cultural Ibaeta
Tel. 21 07 83
Donostia

DISEINUGILEA:
M. Mendizabal

## AURKIBIDEA

Hitzaurrea, urrats ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... .... . 5

Geometriaz, X. Uriarte ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... .. 7

Musika Kultura, A. Mendizabal ... ... ... ... ... ... ... 19

Plastika METODOLOGIARI BURUZ HITZAURRE GISAN, M. Mendizabal ... ... ... ... ... ... ... ... 43

Kirola Irakaskuntzan, J. Mª Goñi ... ... ... ... ... ... 57

Ikastolak, Ipar Euskal Herriko Ikastola, Guraso eta erakasle multzo bat ... ... ... ... ... ... ... ... ... .. 67

Haurra, Egilearen Aurpegi Errainurik beteena, J. M. Aranalde ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 77

UDAKO PEDAGOGI IKASTALDIAK ... ... ... ... ... 80

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALTZAINDIA
BILBO
50548
1987 ABE. 31

# REAHITZAURREAHITZA

SARRERA

Horra, berriro, Urrats Euskal Pedagogiaz arduratu nahi lukeen aldizkaria. Edozeinek esango du, eta arrazoia du, jaioberria izateko, sasoi gutxirekin sortu dela. Gogora dezagun "0 alea" lehengo Ekainean bota genuela. Geroztik ez dugu "1. alea" ateratzerik izan. Gauzak garbi, ez dugu ateratzerik izan. Baina, azkenean, hara non eta hemen dugu. Hura presentazio zen bezala, honek "bideari ekitea" izan nahi luke.

Noraino iritsi gintezkeen? Gu geu prestu egonik ere, galdera horren erantzuna guztien gain uzten dugu. Ez da aski prest egotea, gero ezinaren azpian geratzen bagara. Ezin diogu behar hainbat denbora dedikatu, ezin ditugu gure eguneroko lanak baztertu, ezin dugu inor liberatu. Ez asko eta ez gutxi. Ezin dugu idazlanik kontsegitu. Halere, hemen doa ale hau. Hurrengoa ere aterako dugu, noski. Noiz ordea? Euskal Pedagogiak sasoirik baldin badu, aldizkari honek ere izan dezake. Baina gure Pedagogiak murritza baldin bada, edo murriztu baldin bada, aldizkari hau ere halakoa izango da.

Gutxi gora behera, 300 harpide egin ditugu. Saldu, berriz, beste 300 - 400 artean. Beraz, gu ezagutzen gaituztenak 600 - 700 dira. Gutxi, noski. Hala iruditzen zaigu, behintzat. Zorrik gabe gelditzeko, hor nonbait. Inori ordaintzeko, noski, ez da sosik gelditzen. Baina, hortara ohitua egon behar du euskal gauzetan dabilenak. Halako batetan, eta gure ekintzak zor zaien laguntza izaten badute, aldatuko dira gauzak. Bai, ote?

Urrats aldizkaria daramagunak, hasiera batetan geu izan bagara idazle, orain, iadanik, eskatua dugu hamaika baztarretan laguntza. Agindu ere, agindu zaigu. Dakigunez, hemen lehen lanpetua dagoenari eskatzen zaio. Guk ere hala egin dugu. Halako batetan, euskal irakasle, pedagogo eta abarrei karta bana idazteko haina une izango bagenu, hori ere egingo genuke. Baina, bitarte hortan, orokorki, denak inbitatuak gelditzen dira Urrats-en plazara. Pedagogian zeresan praktiko duen edozein euskalduna deitua gelditzen da gure ekitera. Denon laguntza behar dugu. Denok dugu, hor baztarrean hamaikatxo esperientzia praktiko egina. Baina, ez gara ausartzen, ez gara kezkatzen, edota.... Guztiei dei egiten zaie. Ba gara ala ez gara. Demostra dezagun.

Aldizkari hontan doazen gaiak ezberdinak dira. Gehienak esperientzia praktikotik jasoak. Uste dugu material argibide bezala onak izan daitezkeela. Behar bada, zenbaitentzat, gerta daiteke gure aldizkaria praktikoegia, teoria gutxiegirekin, hain zuzen. Gure lehen helburua, zera zen: lan praktikoak, esperimentatuak, ikusiak, nonbait erabiliak nahiago izatea. Besteak baztertu gabe, noski. Haiek berekin daramate teoria. Ez gara, noski, teoriaren kontrakoak. Baina uste dugu, praktikan urtua, ezabatua doan teoria dela egungo pedagogian eramaten dena.

Esan dezagun, azkenik, Lankide Aurrezkiak eman digun diru laguntzari esker argitaratu dugula aldizkari hau. Beraz, gure eskerrik beroena zabaltzen diogu lerro hauen bitartez.

**URRATS**

# ge
# geom
# geometr
# geometriaz

## MATERIALA-2

Urrats 0-n azaldutako, Geometriaren irakaskintzarako interesgarri izango litzatekeen MATERIAL BURUTU baten azalpena egin genuen eta oraingo honetan, orduan esaten genuen bezala, errealitate berak eskaintzen digun material baten azalpena egingo dugu. Gai bat hartuko dugu nagusi bezala eta gai hori TRANSFORMAKUNTZA EUKLIDEOAK izango da. Baita ere, tarteka egingo ditugun zenbait planteiamendu metodolojiko 5garren eta 6garren mailetan aplikatzeko izango lirakela esan beharra dago, edo behintzat jakinen gainen egon, planteiamendu horik aplikatuak daudela maila horietan.

Bakarrik SIMETRIAZ eta BIRAKETAZ arduratuko gara eta bi transformakuntza horietaz zenbait ariketa proposatuko dugu, baino biak aurretik landuak egotea beharrezko bezala jotzen dugunez, orduan ondo etorriko litzateke ikustea nolaz hasi daitekeen bi transformakuntza horik lantzen, nolaz sarrera bat eman gure programan bi gai horiei. Eta sarrera ematekotan, teknika baten ezagutzetik edo manipularen batetik abiatuko [illegible]ke utziaz "teoria" lan bukatu batzuren erreflexio bezala.

## SIMETRIA

**1 teknika** a) horri txuri edo kolorezko bat hartu eta erditik tolestatu, tolesturaren ertza ondo markatuz.

b) horria tolestua dagoenean, guraize batzuekin mozketa batzuk eman horriari tolestiraren ertzetik.

d) mozketa bukatua dagoenean destolestatu eta atera den irudia obserbatu.



Honelako irudi bat atera daiteke.

**Ariketak 1 teknikarekin**

irudi batzuk marraztuak eman eta 1 teknikarekin ia posible diren lortzea aztertu



aurreko ariketa jarraituz HIZKIAK eta ZENBAKIAK aztertu

bi eratara atera daitezkeen irudiak aztertu



ixpilu txiki baten bidez, ateratzen eta ateratzen ez diren irudien obserbaketa, desberdintasunak formulatuz.

tolesturaren ertzak bi zatitan zatitzen du irudia, zer nolako mugimendua eman behar zaio horietako zati bati bestearen gainean gelditzeko? Jar ahal daiteke gainean horritik altxa gabe?

**2 teknika** a) Azken ariketarekin lotua, txuri bar hartu eta zerbait marraztu boligrafoarekin.

b) Horria tolestuz (beste aldean irudia jarraitzen da ikusten), irudiaren gainetik berriz boligrafoa pasa marka beste aldean utziz.

d) destolestatu



**Ariketak 2 teknikarekin**

ariketa libreak irudi desberdinak probatuz eta tolesturak leku desberdinetatik eginaz (baita ere irudia zatitzen duen tolesturak begiratu)

**3 teknika** a) Ixpiluaren ariketarekin lotua, ixpilua zutik bertikalki jarriaz irudi desberdinen obserbazioa.

**Ariketak 3 teknikarekin**

irudien desberdintasunen obserbazioa.

irudi batzuk marraztuak eman eta ixpilua non jarri behar den ere beste aldean ikusten dena marrazten saiatu.



Teknika hauen erabilketek, konzeptu batzuek jasotzera, hiztegi bat menperatzera eta formulazio batzuk ezagutzera eraman beharko lukete, eta konzeptuak nere ustez honako hauk izan beharko lirateke:

IRUDI SIMETRIKOA
IRUDI SIMETRIKOA ARDATZ BATEKIKO
SIMETRI ARDATZA
IRUDI BATEN SIMETRIKOA ARDATZ BATEKIKO

## BIRAKETA

**1 teknika** a) Horri txuri batetan edozein irudi bat marraztu.

b) Horri txuriaren gainean paper gardena jarriaz irudia kalkatu

d) Bi irudi berdinak marraztuak ditugu bat bestearen gainean; orratz baten puntarekin bi horriak lotu eta gardena biratu, horri txuria geldirik mantenduz.

e) Paper txurian dagoen irudia biratua ikusten da baino bi posizioak paper txurian nahi baditugu ikusi, kalka paperarekin edo beste edozein metodo batez paper gardenean dagoen irudia paper txurira pasa.



**Ariketak 1 teknikarekin**

ariketa libreak, proba ditzaten irudi berdinarekin biraketa zentro desberdinak.

irudi berezi batzuen diseinua. Adibidez



hasierako irudi bezala  hartuz eta biraketaren

zentro bezala triangeluaren erpin bat 

Beste edonolako irudiekin egin daiteke ariketa hau.

aurreko ariketarekin lotua, zentroa duten irudien bereizketa eta zentro bilaketa

zentroa duten irudien azterketa. Nola daude eginak? Zer nolako irudia erabili da? Eta non hartu da zentroa? Baita ere 2garren ariketarekin lotua





biraketa aldagabeen konzeptua landu ("biraketa bat aldagabea izango da irudi batentzat, biraketa eman ondoren ez bada irudiaren posizioa aldatzen")



zenbat biraketa aldagabe ditu irudi bakoitzak? Bi biraketa aldagabek zentro berdina izango dute baina zabaltasun desberdina.

biraketa aldagabeen lantzea honela egin daiteke:



bi honelako irudiak, bat bestearen gainean jarri eta orratz baten punta irudiaren zentroan. Goiko irudiari biraketa ematen hasi behekoaren gainean gelditu arte. Buelta osoa ematerakoan zenbat aldiz egon dira bi irudiak bat bestearen gainean? Zer nolako zabaltasuna dute biraketa horiek?

POLIGONO ERREGULARRAK landu. Ba ahal duzue zentroa? Nola bila daiteke poligono bakoitzean zentro hori (bereiz dezatela aldeen kopurua par eta inpar dutenak). Zenbat simetri ardatz? Zenbat biraketa aldagabe? (honela definituko litzateke poligono erregular bat zer den eta ez aurretik).

Ariketa hauekin lortu nahi den helburua, konzeptu batzuk asimilatzea izango litzateke simetrian bezala, eta konzeptuak honako hauk lirateke:

BIRAKETAREN ZENTROA
BIRAKETAREN ZABALTASUNA
IRUDIAREN ZENTROA
BIRAKETA ALDAGABE

Aipatutako oinarrizko konzeptuak asimilatuak daudenean, beste eratako ariketak planteia daitezke eta honelako batzuk adieraziko ditugu orain.

**A) KALEKO IKURRAK.** Ba daude zenbait hizkuntz grafiko inolazko ahozko formulaziorik ez dutenak, komunikazioa ikus-irakurketaren bidez eginaz. Ikur horien diseinuak askotan, lege geometriko batzuk betetzen dituzte:

## a) TRAFIKOZKOAK eta DENDETAKOAK











b) MARKA KOMERZIALETAKOAK. Egun batzuk aurretik errebista eta egunkari bilduma bat egin daiteke gelan eta gero IKUR-BILAKETA bat proposatu



d) EUSKAL ARTEA. Kutxetako apaingarrietan...etxeetako ataburuetan.. esteletan...hilobietan...armaharrietan...mila ikur berezi agertzen zaizkigu. Globalizazio aldetik ere jo daiteke gai honekin.



## B) EUSKAL ALFABETOAK eta ZENBAKIAK



Buelta erdia ematen badiogu horri honi, berdin irakurtzen diren hizki eta zenbaki batzuk egongo dira. Horiek zentroa edukiko dute eta beraientzat buelta erdia (1/2) biraketa aldagabe bat izango da.

Simetria aldetik, badaude hizki eta zenbaki batzuk simetri ardatz horizontal bat dutenak, beste batzuk berriz bertikala eta gutxienak biak.

Hizkien bidez hitzak asma ditzagun:

adierazitako marra simetri ardatza izan dadin, HITZAK asma itzazu



zentroa eduki dezaten, hitzak osa itzazu

...........O............

S..............S          I.............

## D) KALEKO GAUZAK eta TRESNAK

Simetriaz ari bagara eta kaleko gauzetan fijatzen bagara, simetria gehienetan indarren simetria bat dela ikusiko dugu. Fijatu nolaz erropa zintzilikatzeko erabiltzen diren pintzak ia simetrikoak diren eta pintzak irikitzeko egiten den indarra simetrikoki egiten da, edo balantza bat orekan dagoenean e.a.

Biraketaz ari bagara, fija gaitezen bueltak emanaz funzionatzen duten tresnak: gurpilak, jolasteko erabiltzen diren zibak, e.a.

 

Material honek, metodologia aldetik dituen posibilitate guztiak aipatzea alferrik izango litzateke, baina gutxienez, ba dago nahi bat:

errealitatearekin eta, batez ere, euskal errealitatearekin erlazio bat duen irakaskintza mota bat proposatzea (euskal artea, kaleko ikurrak, publizitatea...)

gela barruko ekintzetatik irtetzeko eta, batez ere, ikasleekiko pasibo den irakaskintza batetik irtetzeko (gelaz kanpo zenbait lan egin. Ikasleak taldetan banatzen dira, segun eginbeharrak eta interesak, talde bakoitza bere antolaketa bereziarekin, erakusketak montatu, talde bakoitzak bere lana besteei azaldu...)

Material honek alde honetatik nolabaiteko laguntza eskaini nahi duela esan beharra dago.

(Xiriako Uriarte)

# MUSIKA KULTURA

bup
cou

BUP 1,2,3 eta COU mailean, Ministeritzak, era hontara planteiatzen du musika alderdia:

Musika Kultura da batik bat, planteiatzen dena. Solfeo edo eta egite eta interpretaketa aldetik, ez du ezer ere proposatzen.

Musika Kultura alderdi hau, bi kursoetan eskatzen du;

BUP 1. Musikaren kondaira osoa; polifonia zaharretik, gaurko musika aurrerakoia bitarte.
COU. "Historia del Arte" delako gaiean, hiru ikasgai azaltzen dira musikaren kondairari lotuak.

Hau guztia ikusirik, Ministeritzak proposatutako planteiamendua oso desegokia ikusten nuen; denbora gutxi barru, konozimendu gehiegi eta benetan musika gozatzeko aukera gutxi. Beraz, beste bide batetik jarraitu dut.

## HELBURUAK

Azaltzen ditudan helburuak, bat bestearekin lotuak daude zenbaitetan, eta ordenak ez du zerikusirik.


## HELBURUAK

Azaltzen ditudan helburuak, bat bestearekin lotuak daude zenbaitetan, eta ordenak ez du zerikusirik.




a) Musikaren bitartez, "sensibilizazioa", "finketa"...
b) Musika - lanaren inguruan, kreatibitatea askatu...
d) Interpretaketaren munduarekin kontaktoa...
c) Espresioa, barne-espresioa askatu...
f) Iniziatiba eta programaketa ahalmena landu...
g) Kritika sentidua, eta kritika egiteko oinarriak...
h) Teori eskemak; kondaira eta musika motak, gizarte egoerarekin lotuak...
i) Musika "biziarekin" harremanetan ipini, konziertoaren mundua...
j) Musika-tresnaren mundua ezagutu... diskak, zaintzeko erak...
k) Grabaketaren bitartez, musika "etxeratu"
l) Euskal Musika. Euskara...

Ikusten den bezala, helburu asko...ez urte bat ez bitan, bete ezinezkoak. Teoriari garrantzia eman diot, baina nire ustez, sensibilizazio eta interes baten araberan eman behar da, "hutsean" erori ez dadin... "Behar" bat bihurtzen denean eman eta ez aurretik, teoriz ugoldetu ikaslea. Helburu hauek aurrera eramateko, denbora, lasaitasuna eta medioak behar dira. Honengatik, BUP eta COU maila guztietan, ordu bete bat astero ipintzea pentsatu zen, nahiz eta Ministeritzak BUP 1 eta Coun bakarrik eskatu.

## PROGRAMAKETA

Hemen, ikastolako programaketa ofiziala adieraziko dut. Kontuan eduki behar da ordea, ikasleak ere egin dezaketela beste programaketa paralelo bat, baina hau, kurso ezberdinen araberan sortzen denez gero, ez dut aitatuko.

Lau urteetako programaketa hau, bi multzo nagusietan banaturik daukagu:

A) MUSIKAREN MOTAK (BUP 1, BUP 2)

B) MUSIKAREN KONDAIRA (BUP 3, COU)

### A) MUSIKA MOTAK
(Formas musicales)

Sarrera. Artea. Musika arte alderdi bat. Musikaren oinarriak eta musika motak (Tchaikowsky, Ravel, Rodrigo, Albinoni...)

Suite: Zaharra. (Ernazimenduko dantzak, Praectorius, Bach, Haendel, Mozart)

Berria. (Tcahikowsky, Prokofieff, Strawinsky, Guridi...)

Sonata: Eskema. (Beethoven...)

Sinfonia: (Mozart, Beethoven, Dvorak...)

Konziertoa: (Corelli, Vivaldi, Bach, Mozart, Chopin...)

Obertura: (Monteverdi, Mozart, Rossini, Wagner, Tchaikowsky, Brahms...)

Poema Sinfonikoa: (Liszt, Smetana..)

Fuga eta bariakuntzak: (Bach, Britten...)

Sinfoniko Korala:
- Abestia (herrikoia)
- Madrigala (Monteverdi, J. Enzina...)
- Motetea (Mozart...)
- Lied (Malher, Schubert...)
- Meza (Mozart, Urteaga...)
- Requiem (Mozart, Britten)
- Pasioak (Ponderecky...)
- Kantata (Teleman...)
- Sinfonia (Malher...)
- Opera (Rossini, Eskudero..)

(Programa honen adibide bezela, lan honen bukaeran, 1976 - 77garren urteko programa zehatza ikus dezakezu. Diagrama horietan, ipin zitezkeen lanetaz gainera, zenbateraino onartuak izan ziren ere azaltzen da. Puntuazioa, 0 eta 4 bitartean ipintzen da, atsegintasunaren araberan. 2,5 tik gora pasa direnak, ongi erori direla esango nuke...)

..........................................................................




SARRERA
TCHAIKOWSKY. MARCHA ESLAVA
3
J.S. BACH TOCATTA Y FUGE EN RE
1,82
A. VIVALDI CONCERTO EN RE PARA CUERDAS
2,90
B. BRITTEN. WARD REQUIEM (Dieslrae)
2
J. RODRIGO. CONCIERTO DE ARANJUEZ (LARGO)
3,08
M. RAVEL. Bolero
3,04
SUITE
ANONIMO. DANSERIES DU RENAISENCE
1,87
M. PRAETORIUS. DANSES DE TERPISCHORE
2,58
J.S. BACH. SUITE Nº 3
2,23
MOZART. GAU SERENATA
2,81
Z. KODALY. HARY HANOS
3,39
TCHAIKOWSKY. CASCANUECES
3,50
SINFONIA
MOZART SINFONIA 40
2,54
BEETHOVEN SINFONIA Nº 5
2,78
A. DVORAK SINFONIA Nº 9
3
J.C. ARRIAGA. SINFONIA
4,39
KONZIERTOA
A. VIVALDI 4 URTE AROAK
3,24
J.S. BACH. BRANDENBURGO Nº 6
2,72
MOZART. CONCIERTO TROMPA Y ORQUESTA
3,10
TCHAIKOWSKY CONCIERTO Nº 2 PIANO ETA ORKESTA
3
OBERTURA
MONTEVERDI. Tocatta
2,90
MOZART. Bodas de Figaro. Obertura
2,57
ROSSINI. Guillermo Tell. Obertura
3,04
ARRIAGA. Los esclavos felices. Obertura
3
WAGNER. Lohengrin Preludio
3,52
BRAHMS. Obertura Fiesta académica
3
TCHAIKOWSKY. Obertura 1812
3,54
BORODIN. Píncipe Igor. Obertura
2,75
LIZST. Los preludios
2,78
SMETANA. Moldera
3,38


ABESTIA-MADRIGALA
EZEZAGUNA. ABESTIKATALANA 2,79
EZEZAGUNA. HAIKA MUTIL 2,93
EZEZAGUNA. OIES ERRONDAN 2,51
EZEZAGUNA. CARMINA BURANA. Charmen 2,18
K. ORFF. CARMINA BURANA. Charmen 2,54
JUAN DEL ENZINA. Hoy comamos 2,51
JUAN DEL ENZINA. Hermitaño 2,10
LIZARDI-VALVERDE. BIOTZEAN MIN DUT 3,89
LIED
MAHLER. DAS TRINKLIED 2,38
MAHLER. UM MITTERNACH 1,92
TELEMAN. MEINSTER SCHULE 3
PURCELL. MAITAGARREN ERREGIÑA 2,82
ELIZ MUSIKA
INOCENCIO III. VEÑI SACTE SPIRITUS 2,23
MOZART. AVE VERUM 2,71
PENDERECKY. STABAT MATER, 2,50
MOZART. REQUIEM 3
PENDERECKY. PASIO SECUNDUM. LUCAM (ZATIAK) 2,81
GARBIZU-LERCHUNDI. AINPA JAINKOA 2,66
J. URTEAGA. IGANDEKO MEZA 2,79
H. BERLIOZ. TE DEUM (ZATIAK) 2,86
OPERA
H. BERLIOZ. SINFONIE FANTASTIQUE (ZATIAK) 3,42
H. BERLIOZ. L'ENFANCE OU CURIST (ZATIAK) 2,32
ESKUDERO. ZIGOR 3
BUKAERA
RAVEL. BOLERO 3,35
TCHAIKOWSKY. CASCANUECES 3,41
VIVALDI Urte aroak 3,26
POULENC. Concierto Organo, cuerda, timbales 2,59

## B) MUSIKAREN KONDAIRA
(Historia de la Música)

- Erromantiku garaia. "Ars Antiqua". Organum.
- Gotiku garaia. "Ars nova". Trobadoreak.
- Ernazimendua. Instrumental musika. Madrigala.
- Barroko garaia. Kantata eta Oratorioa. Barrokoa Europan.

Klasiko garaia. Opera.

- Beethovenen iraultza.
- Erromantiko lehen garaia.
- Erromantiko bigarren garaia.
- Postromantiku garaia.
- Nazionalismo erromantikoa.
- Inpresionismoa.
- Dodekafonismoa.
- Nazionalismu berrizalea.
- Modernismoa.
- Serialismoa.
- Banguardismoa.
- Blues eta gaur abestia.
- Folk, Rock...
- Jazz.

ZATI HONEN ZABALKETA BESTE HORRI BATEAN IKUS DEZAKEZU

| | ERROMANTIKOA I | ERROMANTIKO II | POSTROMANTIKOA | NAZIONALISMO ERROMANTIKOA | IMPRESIONISMOA- | DO |
|---|---|---|---|---|---|---|
| PIANO | BEETHOVEN. AL. 70<br>SCHUBERT. AS. 97<br>MENDELSHON. AL. 09<br>CHOPIN. PI. 10<br>SHCUMANN. AL. 10<br>LISZT. HN. 11 | BRAHMS. AL. 33 | GRIEG. NR. 43 | ALBENIZ. ES. 60<br>PAGOLA. EUS. 78<br>OLAIZOLA. EUS. 83<br>DONOSTIA. EUS. 86<br>ALMANDOZ. EUS. 93<br>RODRIGO. ES. 01<br>GARBIZU. EUS. 10<br>MOUSSORGSKY. RS. 69 | SATIE. FR. 66<br>DEBUSY. FR. 68<br>RAVEL. EUS. 75 | SC |
| LIED | BEETHOVEN. AL. 70<br>SCHUBERT. AS. 97<br>SCHUMANN. AL. 10 | BRAUMS. AL. 33<br>WOLF. AS. 60 | MAHLER. AS. 60 | ALBENIZ. ES. 60<br>ALBERDI. EUS. 93<br>SOROZABAL. EUS. 97<br>RODRIGO. ES. 01<br>GARBIZU. EUS. 10 | RAVEL. EUS. 75 | SC<br>BE |
| KAMARA | BEETHOVEN. AL. 70<br>SHUBERT. AS. 97<br>ARRIAGA. EUS. 06<br>MENDELSHON. AL. 09<br>SCHUMANN. AL. 10 | BRAHMS. AL. 33<br>FAURE. FR. 45 | SIBELIUS. FL. 65<br>REGER. AL. 73 | TCHAIKOWSKY. RS. 40<br>DVORACK. TX. 41<br>IVES. EU. 74<br>TURINA. ES. 82<br>DONOSTIA. EUS. 86<br>USANDIZAGA. EUS. 87<br>SOROZABAL. EUS. 97<br>CHOSTAKOWICH. RS. 06<br>ITURRALDE. EUS. 08 | DEBUSY. FR. 68<br>RAVEL. EUS. 75 | SC<br>WE |
| SINFONIA | BEETHOVEN. AL. 70<br>SHUBERT. AS. 97<br>ARRIAGA. EUS. 06<br>MENDELSHON. AL. 08<br>SHUMANN. AL. 10 | FRANCK. FR. 22<br>BRAHMS. AL. 33<br>SAINT SAENS. FR. 35 | BRUCKNER. AS. 24<br>D'INOY. PR. 51<br>MAHLER. AS. 60<br>SIBELIUS. FR. 65 | BURODIN. RS. 33<br>TCHAIKOWSKY. RS. 40<br>DVORACK. TX. 41<br>R. KORSAKOFF. RS. 44<br>IVES. EU. 74<br>ENESCO. RM. 81<br>ALBERDI. EUS. 93<br>CHOSTAKOWICH. RS. 06 | | |
| POEMA / OBERTURA / SUITE | BEETHOVEN. AL. 70<br>BERLIOZ. FR. 03<br>ARRIAGA. EUS. 06<br>MENDELSHON. AL. 09<br>WAGNER. AL. 13<br>LISZT. HN. 11 | FRANCK. FR. 22<br>BRAHMS. AL. 33<br>SAINT SAENS. FR. 35 | J. STRAUSS. AS. 25<br>GRIEG. NR. 43<br>R. STRAUSS. AL. 64<br>SIBELIUS. FL. 65<br>HOLST. IN. 74 | SMETANA. TX. 24<br>BORODIN. RS. 33<br>TCHAIKOWSKY. RS. 40<br>OVORACK. TX. 41<br>R. KORSAKOFF. RS. 44<br>SARASATE. EUS. 44<br>GRANADOS. ES. 67<br>PAGOLA. EUS. 78<br>OTAÑO. EUS. 80<br>TURINA. ES. 82<br>ENESCO. RM. 81<br>KODALY. HM. 82<br>GURIDI. EUS. 86<br>USANDIZAGA. EUS. 87<br>DONOSTIA. EUS. 86<br>SOROZABAL. EUS. 97<br>KACHANRIAN. RS. 03<br>GLINKA. RS. 04 | DUKAS. FR. 65<br>DEBUSY. FR. 68<br>RAVEL. EUS. 75 | SC<br>WE |
| KONZIERTO | BEETHOVEN. AL. 70<br>MENDELSHON. AL. 09<br>CHOPIN. PL. 10<br>SCHUMANN. AL. 10<br>LISZT. HN. 11 | BRAHMS. AL. 33<br>SAINT SAENS. FR. 35 | GRIEG. NR. 43<br>SIBELIUS. FL. 65 | TCHAIKOWSKY. RS. 40<br>DVORACK. TX. 41<br>SARASATE. EUS. 44<br>ALBENIZ. ES. 60<br>RACHMANINOFF. RS. 73<br>RODRIGO. ES. 01<br>KACHATURIAM. RS. 03<br>ITURRALDE. EUS. 08<br>GARBIZU. EUS. 10 | DEBUSY. FR. 68<br>RAVEL. EUS. 75 | BE |
| SINFONIKO KORALA | BEETHOVEN. AL. 70<br>BERLIOZ. FR. 03<br>ARRIAGA. EUS. 06<br>MENDELSHON. AL. 09<br>ESLAVA. EUS. | FRANCK. FR. 22<br>BRAHMS. AL. 33<br>FAURE. FR. 45 | BRUCKNER. AS. 24<br>MAHLER. AS. 60 | DVORACK. TX. 41<br>OTAÑO. EUS. 80<br>KODALY. HN. 82<br>OLAIZOLA. EUS. 83<br>DONOSTIA. EUS. 86<br>ALBERDI. EUS. 93<br>ALMANDOZ. EUS. 93<br>ITURRALDE. EUS. 08<br>GARBIZU. EUS. 10 | SATIE. FR. 66<br>DEBUSY. FR. 68 | SC |
| OPERA / BALLET | **ITALIA**<br>ROSSINI 92<br>DONIZETTI 97<br>BELLINI 01<br>VERDI 13<br>PONCHIELLI 34<br>LEONCAVALLO 98<br>PUCCINI 58<br>MASCAGNI 63<br>**FRANTZIA**<br>MEYERBER 91<br>HAROLD 91 | BERLIOZ 03<br>GOUNOD 18<br>CHABRIER 41<br>MASSENET 42<br>BIZET 38<br>FAURE 45<br>**ALEMANIA**<br>BEETHOVEN 70<br>WEBER 86<br>NICOLAI 10<br>WAGNER 13<br>HUMPERDINCK 54<br>WOLF 60 | **EUSKALERRIA**<br>ARRIAGA 06 | **RUSIA**<br>GLINKA 04<br>BORODIN 33<br>R. KORSAKOFF 44<br>MOUSSORESKY 69<br>**TXEKOSLOBAKIA**<br>SMETANA 24<br>OVORACK 41<br>**HUNGRIA**<br>KODALY 82<br>**EUSKADI**<br>GURIDI 86<br>USANDIZAGA 87<br>SOROZABAL 97<br>**BALLET**<br>TCHAIKOWAKY. RS. 40<br>OLAIZOLA. EUS. 83<br>KACHATURIAN. RS. 03 | **RUMANIA**<br>ENESCO 81<br>**ESPAÑA**<br>ALBENIZ 60<br>GRANADO 6<br>TURINA 82<br>SATIE. FR. 66 | SC<br>BE |

| DODEKAFONISMOA | NAZIONALISMO BERRITZAILEA | MODERNISMOA-SERIALISMOA-BANGUARDISMOA | | |
|---|---|---|---|---|
| SCHOMBERG. AS. 74 | SCRIABINE. RS. 71<br>BARTOCK. HN. 81<br>COOPLAND. EU. 00 | STRAWINSKY. RS. 82<br>PROKOFIEFF. RS. 91 | MESSIAEN. FR. 08<br>BOULEZ. FR. 25<br>STOCKHAUSEN. AL. 28 | |
| SCHOMBERG. AS. 85<br>BERG. AS. 85 | FALLA. ES. 76 | MILHAVD. FR. 92<br>HINDEMITH. AL. 95<br>POULENC. FR. 99<br>BRITTEN. IN. 13 | | |
| SCHOMBERG. AS. 74<br>WEBERN. AS. 83 | JANACEK. TX. 54<br>BARTOCK. HN. 81<br>ESKUDERO. EUS. 13 | STRAWINSKY. RS. 82<br>PROKOFIEFF. RS. 91<br>VILLALOBOS. BR. 87<br>HONNEGER. FR. 92<br>CAGE. EU. 12<br>BRITTEN. IN. 13 | MESSIAEN. FR. 08<br>BOULEZ. FR. 25 | REMATXA. EUS. 98<br>BERNAOLA. EUS. 29 |
| | JANACEK. TX. 54<br>SCRIABINE. RS. 71<br>COOPLAND. EU. 00 | STRAWINSKY. RS. 82<br>VILLALOBOS. BR. 87<br>PROKOFIEFF. RS. 91<br>HONNEGER. FR. 92<br>HINDEMITH. AL. 95<br>CHAVEZ. MX. 99 | HARTMANN. AL. 05<br>MESSIAEN. FR. 08<br>BERIO. IT. 25<br>HENZE. AL. 26 | |
| SCHOMBERG. AS. 74<br>WEBERN. AS. 83 | JANACEK. TX. 54<br>BARTOCK. HN. 81<br>GERSWIN. EU. 98<br>COOPLAND. EU. 00<br>ESKUDERO. EUS. 13 | RESPIGNI. IT. 79<br>STRAWINSKY. RS. 82<br>SASELLA. IT. 83<br>VARESE. EU. 83<br>PROKOFIEFF. RS. 91<br>MILHAUD. FR. 92<br>POULENC. FR. 99<br>TIPPET. IN. 05<br>BRITTEN. IN. 10 | MESSIAEN. FR. 08<br>MADERNA. JT. 20<br>NONO. IT. 24<br>BOULEZ. FR. 25 | CAGE. EU. 12<br>XENAKIS. GR. 22<br>BERIO. IT. 25<br>AZILU. EUS. 29<br>BERNAOLA. EUS. 29<br>DE PABLO. EUS. 30<br>STOCKHAUSEN. AL. 28<br>ONDARRA. EUS. 31<br>KAGEL. 31<br>BUSSOTTI. IT. 31<br>PENDERECKY. PL. 33 |
| BERG. AS. 85 | FALLA. ES. 76<br>BARTOCK. HN. 81<br>GERSWIN. EU. 98<br>ESKUDERO. EUS. 13 | STRAWINSKY. RS. 82<br>MALIPIERO. IT. 82<br>POULENC. FR. 99 | DALLAPICOLA. IT. 08<br>CAGE. EU. 12<br>MADERNA. IT. 20<br>STOCKHAUSEN. AL. 28 | |
| SCHOMBERG. AS. 74 | FALLA. ES. 76<br>ESKUDERO. EUS. 13 | STRAWINSKY. RE. 82<br>PROKOFIEFF. RS. 91<br>HONNEGER. FR. 92<br>POULENC. FR. 99<br>KRENECK. AS. 00<br>ORFF. AL. 95<br>TIPPET. IN. 05<br>BRITTEN. IN. 10 | PETRASSI. IT. 04 | REMATXA. EUS. 98<br>AZILU. EUS. 29<br>HALFTER. ES. 30<br>BUSSOTTI. IT. 31<br>PENDERECKY. PL. 33<br>LARRAURI. EUS. 34<br>MARCO. EUS. 42 |
| SCHOMBERG. AS. 74<br>BERG. AS. 85 | JANACEK. TX. 54<br>FALLA. ES. 76<br>BARTOCK. HN. 81<br>GERSWIN. EU. 98<br>ESKUDERO. EUS. 13 | STRAWINSKY. RS. 82<br>PROKOFIEFF. RS. 91<br>MILHAUD. FR. 92<br>POULENC. FR. 99<br>BRITTEN. IN. 13 | DALLAPICOLA. IT. 08<br>HARTMANN. AL. 05<br>MADERNA. IT. 20<br>HENZE. AL. 26 | PENDERECKY. PL. 33<br>DE PABLO. EUS. 30 |
| | FALLA. ES. 76<br>BARTOCK. HN. 81 | STRAWINSKY. RS. 82<br>CASELLA. IT. 83<br>PROKOFIEFF. RS. 91<br>MILHAUD. FR. 92<br>HINDEMITH. AL. 95<br>POULENC. FR. 99 | | |

Egitarau hontan, ohar hauek adierazi nahi nituzke:

Egitarau osoa ez dudala beteko ikusten ba dut, Beethovenen garaitik aurrera hasten naiz. Nere iritzian, gaurko musikaren oinarriak, Erromantiko garai hortan sortzen dira garbi, eta gaurko musika aztertu gabe, ezin gaitezke geldi.

Egitarau honen atalak, oso generikoak dira, Europa osorako zabalduak. Hauen barnean, Euskalerriko musika aztertzen da, beste herri berezi bat bezala.

Oraingoz, ez dut sekulan programazio osoa eman, Cou-ko kursoa osorik eman ez dugulako noski, baina zabalegia dela iruditzen zait. Zerbait kentzerakoan, lehenegoetako ataletatik kenduko nuke.

## METODOLOGIA ETA ARAZOAK

**Klaseko antolamendua:**

Astero, ordu bete bateko klasea daukagu.

Hilabetero, klase bat "libre" uzten dut, Ikasleak berak programatu dezaten. Klase honen helburua zera da;

## KLASE LIBREA

beste momentuko interesei erantzutea (Gaurko musika..) bestela, oso urruti gelditzen da gaurko musikaren azterketa (Coun) eta giro txarra sor daiteke "Klasiko musika"ren inguruan. Iniziatiba eta interpretaketa lantzea.

Normalean bere diskak ekartzen dituzte, eta era hontan antolatzen dugu entzunaldia:

- Diska ekarleak, ahozko ohar batzuen bitartez, aurkezten du.
- Entzunaldia egiten da, guzion artean, erabakitako diskekin.
- Iritziak ematen dira, ez idatziz, hitzez baizik.

Kasu batzuetan, berak, bere klase honen programaketa egiten dute. Hara, BUP 3 A koak prestatu dutena, 2 eta 3garren trimestrerako:

1960 Rock and Roll (Elvis)
Beat: Beatles, Who.
Rollings.
Folk (Dylan)

1969 Jimy Genesis
Led. Zepp. Chicago.
Crosby.

Programaketa hau beroiek eramango dute aurrera, bere diska, material, fitxa eta egokia ikusten dutenarekin.

Interpretaketa aldetik, orain arte behintzat, ahots konjuntoak (Bup 2 B) eta instrumentoak azaldu dira (Kitarra, txistu, klarinete, txalaparta...) (Bup 2 A, 2 B)

Klase libre hontan, jotzaileak, bere instrumentua esplikatzen du eta erakutsi ere. Gero jo edo abestu behar duenaren adibideak adierazi. Entzun ondoren, entzuleak, bere kritika egiten dute. Oso interesgarria deritzait alderdi hau, batez ere, instrumentu bat serio ikasten ari direnentzat, "publikoarekin" lehenengo kontakto bat bait da, eta ohitura eta lasaitasuna hartzeko bide bat. Bestealde batetik, pieza berriak prestatzeko bultzada bat.

Klase libre hau beraz, oso garrantzizkoa ikusten dut, d), f) helburuak sakonduaz eta, ikaslegoarengan, lasaitasun bat lortzen duelako, "Klasiko" programazioari begira, interesa eta sessibilizazio mantenduaz.

Hilabeteko beste klaseak, lehen azaldu dugun programaketa normal hortara dedikatzen ditugu: Klaseak era hontan moldatzen dira:

## KLASE NORMALA

15 minutu teoria
40 minutu entzunaldia
5 minutu iritzia emateko

Teoria: Modu ezberdinetan ematen dut:

Ahozko oharrak (Apunteetan hartzeko edo, entzunaldi gidan apuntatzeko)
(ikus entzunaldi gida)
Fitxa bereziak (Teoria idatzia dakarte)
(Denbora aurreratzeko onak)
(Ikus Beethovenen fitxa)

| | |
|---|---|
| Entzunaldia: | Konzentrapena lortu behar da. Isiltasun osoa exijitzen da. Ilunpean egiten dira, argi txiki bat pizturik (Diapositiba..)<br><br>Disekzio bereziak egiten dira batzutan, musikan egitura eta gaiak hartzen laguntzeko. Hontarako, Entzunaldiak kronometratzen dira, "Opaskopioaren" bitartez azaltzen den "kronografo" batekin, eta fitxa berezi hoietan dauden denbora neurriekin. (Ikus, Dvorak eta Vivaldiren lanak)<br><br>Montaje bereziak ere eratzen dira, marrazki eta diapositibekin. (Berlioz - Goya)<br><br>Musika sinfoniko korala denean edo hitz arrotzak sartzen direnean, itzulpen horri bat ematen zaie (Ikus Malher) |
| Iritziak: | Iritziak normalki, entzunaldi gidan ipintzen dituzte, baina batzutan ahoz ere ematen dira. (Ikus iritzi batzuek) Iritziarekin batera, puntuazio bat ematen dute (0 - 4) bitartean. Puntuazio hauekin, estadistikak egin daitezke (Ikus Lehen azaldu diren Diagramak) |

Klase hauetan, a), b), d), e), g), h), eta l) helburuak lantzen dira batik bat.

Sensibilizazio aldetik, aurrerapenak nabariak dira.

Espresioa, barne espresioaren askaketa ere oso nabarmena da. Adin hontako gazteak, espresatzeko behar handi bat du (guk ez hala?) eta iritzietan, askotan nabari dut askaketa bat alde hontatik.

Kritika sentidoa ere, heltzen doa, eta hori, urtetik urtera ikusten da... halaz ere, hobeto lotu behar dudan atala dela uste dut. Interpretaketa aldetik kritika egiten saiatzen gara baina zaila da.

Euskal musika... tamalez, oso maila kaxkarrekoa da eta hontaz konturatzen dira. Euskara aldetik ordea, itzulpen hoiek interesgarriak derizkit.

Kreatibitate alderdia ez da lortzen nik nahi hainbat... intento batzuk egin dira, musika eta plastika lotzeko, eta emaitza interesgarriak ere, baina askoz gehiago lortu behar dela uste dut.

Orokorrean esan behar dut, klase hauetan giro ona dagoala, eta jendea ilusioarekin etortzen dela musika entzutera.

Bienako klasizismoaren igoera, gorenaldia eta beherakada, garaiko gizartearen araberetara oso loturik dago. Erregetzak, ordurarteko indar nagusi eta mugagabea borrokatua ikusten du. Geldi ezinezkoa den aldaketak datoz eta aldaketa hauek, Frantziko Iraultza izango dute bere adierazpen ikusgarriena.



Haydenentzat, berezkoa eta normala zen jabe batekiko zeukan material menpetasuna. **Mozartek** ordea, bere bizitzaren aurreneko urteetan egoera berdina biziarren, 24 urteetatik aurrera, noblezi honen menpetasun hortatik liberatzea erabakitzen du. baina lortu ere neurri handi batean. Bere estiloa zabaldu, aldatu eta sakonduaz, geroz eta urrutiratuagoa aurkitzen da, bai musika, bai pentsaera aldetik. Honengatik ahaztua izanen da eta baztertua. Bere bakar heriotza guztiontzako ezaguna dugu.

**Beethovenek,** zer esanik ez, noblezi harekin ere hautsi egiten du, baina beste era batera; hausketa hau, ez da gizartearen eragin soil bat. Beethovenek, bere barnean dakar beste izaera bat, gizartearen egoeraren gainetik dagoena. Izaera hau dago bete betean, bere musikan zabaldua.

Beethovenen GIZONA bilatu eta aurkitu behar dugu. "Eroe" bat al da Beethoven? Bai, daitekeena da, baina oso eroe berezia. Inolaz ere ez da Militar era handikerizko "Eroe" hoietakoa. Bere "eroe" izatea, bere barnean gertatzen denari begira ikusi behar da; beti bere barruko "demonioarekin" burrukan. Askatasun eta Handitasunaren bila, baina batez ere, Maitasun bila... sekulan izan ea zuen maitasunaren bila. Bere gorreri latzaren barnetik, beti borrokan, gizartea ukatuaz batzutan, maitatuaz bestetan, beti zerbaiten bila, sekulan atzera jo gabe, nortasun izugarri batekin azpimarraturik guztia... Nola expresatu, nola adierazi hau dena? Musikan aurkitzen du bere expresabide betea. Honengatik, musika, bere "behar bat" da; behar materialen gainetik, barneko behar erabatekoa...



Beethovenen bizitzan, hiru aldi aurki ditzazkegu. Lehen aldian, 1801 garren urtea bitartean, garaiko musikaren eragina nabari da. Haydn eta Mozarten klasizismoaren barnean bizitzen da. Beethoven, piano jotzaile oso famatua da. Inprobisazio izugarriak egiten zituen eta nobleziaren ateak, erabat ireki zaizkio. Haydnen influentzia Mozartena baino handiagoa da garai honetan. Haydn izan zuen maixu leiala. Beethoven ordea, ikasle oso berezia gertatzen zen, eta bere maixuaren irakasketaren gainetik, bere musika sentitzeko era berezia erakusten zuen.

Garai hontakoak ditugu lehenengo eta bigarren sinfoniak, "patetika" sonata, sei kuarteto eta Adelaida.



Bigarren aldia, 1801-1815 bitartean muga dezakegu. Musikalari bezala, heldutasun osora iritxi da. Sonata formarekin esperientzi berriak egiten ditu: "Lehenengo mugimenduari" sarrera bat erantsi; gaiak, tonalidade ezberdinetan adierazi, bukaeran, zabalketa berri bat ezarri... "Bigarren mugimendua", "lied" moduan antolatu... "Minuettoaren" partez, "Scherzoa"... baina bide batez, expresioa...indarra...barnea kanporatzea, hori da bere lorketa benetazkoa.

Gorreria azaldu da, eta gertaera fisiku honek, eragin izugarria dakar bere bizitzan. Gizartetik urrutiratzen da, geroz eta barrukoiagoa ari da bihurtzen gizartea ukatzen du zenbaitetan. Bere musika-lanak halaz guztiz ere, arrakasta geroz eta handiagoa dute; berak zuzentzen zituen konziertuetara, Errusi, Prusi eta Austriako errege eta erreginak maiz azaltzen dira.

Gorreriaz gainera, famili arteko gorabehera latzak ba zituen; bere iloba hartu zuen babesean eta honek, mixeriak eta larritasunak handitu zizkion. Hau guztia gutxi ba zen, Bienako kongresoa zela eta demokratizazioaren aurrerabideak mozturik gelditzen dira. A zer nolako kolpea, Askatasunaren bilatzaile sutsu honentzako.

Garai hontakoak dira eta 8 bitarteko sinfoniak. Sonataren artean 27,81,90 nabarmentzen dira. Fidelio opera eta kuartetoak (Op. 59) ere aldi hontan osatu zituen.

Hirugarren aldia, 1815 eta 1827 bitartekoa da. Gorreri bete betean dago. Besteekin komunikatzeko bidea idatzia bakarra du. Barruko bizitza, bete betean adieratzen du garai hontako musikan; POZA eta ATSEKABEA dira nagusi. Sonata forma apurtzen du eta musikak agintzen du edo hobeki esan, musika, barruaren mendean doa, ez dago inungo mugarik. Bederatzigarren sinfonian, abestalde eta bakar abeslariak sartu beharrean aurkitzen da. Garai hontakoa dugu "Misa solemnis" ere. Bederatzigarren sinfonia, erromantikotasunaren azalpenik nabariena dela esaten da; jarraipenik izan ahal du?... Lehen forma intelektual hutsak bezala gogartuak izan ziren "fuga" eta "bariakuntzak" erabiltzen ditu orain Beethovenek.

Diruz ez zebilen gaizki (ongi kobratzen zuen lehendabiziko musikalarietako bat zen) baina ber miseriak geroz eta gehiago handitzen doaz: gorreria, bakardadea, famili arazoak... Jainkoarekin bakar hizketan... gaitz batek harturik... 1827 garren urtean hiltzen da. Bere hiletara, jendetza izugarria bilduko da. Bere inguruak asko estimatzen zuela garbi azalduaz.

Beethoven, zer da Beethoven? Azken klasikoa?... Lehen erromantikoa?... ala biak batera?... Ez al da gaurkoa ere?... Bakoitzak eman beza erantzuna, bere musika entzun ondoren.



**VIVALDI. "URTE AROAK" Konz.** 1.2.3.4. Óp. 8. Bibolin eta Orkesta.
**MUSIKA.** Bibolin: **F. AYO**

Vivaldi musikalaria, 1678 garren urtean jaiotakoa. Veneziarra zen. Vienan 1741 garren urtean hil zen. Vivaldiren irudi eta garrantziaz, mintzatu gara, aurreko saio batzutan. Beste zer edo zer adieraziko dugu orain.

Bere lanetan oso ugaria zela, argi ikusten dugu: 500 konzierto, 53 sonata, 50 eleiz lan, 40 Opera... Bere lan gehienak oraindik ere, artxibotan daude eta ez dira ongi ezagutzen. Lan hauek argitaratzen doazen ala, bere garrantzia ere handitzen doa.

Hasiera batean, CORELLIREN jarratzaile sutsua agertzen zaigu. Gero ordea, beste bide batzutatik jotzen du, eta Concerto Grossoren ordez, instrumentu bakarrak erabiltzen ditu bere konzierto lanetan. Era askotako instrumentuak aztertzen ditu (flauta, oboe, fagot, tronpeta, bibolina...) Era hontan, instrumentuaren teknika asko aurreratu zen, eta etorkizunaren ateak, beste musikalariei (Bach, Hacendel) zabalduak utzi zizkien.

"Urte aroak", bibolin eta orkestaren lau konzierto bikainak dira. Vivaldik, bertso motz batzuen bidez, esanahi bat azaltzen du. Musika "deskriptiva"ren aurrenetako adibide bat izanen da hau. Ohitura zen bezala, konzierto bakoitza hiru zatiz osatua dago: Allegro-Largo-Allegro.

**LEHENENGO KONZIERTOA. UDABERRIA.**

IRITZIA:

| | |
|---|---|
| A - Udaberri zoriontsua iritxi da! | 0'00" |
| B - (Bak) Xoriak, abesti gozoz, onetorria ematen diote | 0'32" |
| C - Errekaren hots geldia... | 1'18 |
| D - Zerua estali da. Tximist eta trumoiak... ekaitza. | 1'51" |
| E - (Bak) Ekaitza igaro ondoren, berriro xoriak... | 2'30" |
| | 3'38" |
| F - Zelai lasaiean... belar eta lore soinu biguinaren artean, artzaia eta zakurra lo daude (Bak) | 3'45" |
| | 6'38" |
| G - Soinu bizi eta pozgarriz, artzaiak, Udaberriaren edertasuna ikusiaz, dantzan dabiltza | 6'44" |
| | 11'18" |

**BIGARREN KONZIERTOA. UDA.**

IRITZIA:

| | |
|---|---|
| A - Udako bero gorriz, artzaia eta artaldea makalduak | 0'00" |
| B - Kukua abesten ari da | 1'04" |
| C - (Bak) Usapalak eta txontak ere abesten dute | 2'00" |
| D - Haize boladatxoa sortu da... geroz eta handiagoa | 2'38" |
| E - (Bak) Artzaiak, bildurrez, negarrari ekiten dio | 3'35" |
| | 5'11" |
| F - Atsedenik gabe... indarrak galduaz... bildurrez... | 5'17" |
| | 7'34" |
| G - Izugarrizko ekaitza! Kazkabarrak garia zapaldu du | 7'39" |
| | 10'25" |

**HIRUGARREN KONZIERTOA. UDAZKENA.**

IRITZIA:

| | |
|---|---|
| A - Uzta egokia! Nekazariak pozik dantzan eta abesten | 0'00" |
| B - (Bak) Asko edan ondoren... | 1'18" |
| C - Lo kuluskatxo bat egiten dute | 3'57" |
| | 5'52" |
| D - Dantza eta abestiak alde batera utziaz, gauez... lo lasaiean daude... Bai urtearo atsegina... | 6'00" |
| | 8'35" |
| E - Goizetik, ehiztariak, bere adar soinu eta zakurrez ehizera doaz. | 8'41" |
| F - Abereak alde egiten du. Ehiztariak bere atzetik... | 10'23" |
| G - Bildurtua... nekatua... zauritua... | 11'30" |
| H - Azkenik indarrak galdurik hiltzen da aberea | 11'45" |
| | 12'18" |

# MOZART. 40 SINFONIA.

## Jottz. ACADEMY OF ST. MARTIN-IN-THE-FIELDS
## Zuz. NEVILLE MARRINER.

Musika jakintsuak diotenez, Sinfoniaren hasierak, K.F.E. BACH en aurki ditzazkegu. Hala eta guztiz ere, dudarik ez dago, Sinfoniari, HAYDN ek eman ziola bultzada izugarria, eta sortzaile ez ezik, HAYDN dugu noski bere indartzaile nagusia.

HAIDN-en ondoren, MOZART dator, bere maisuaren jarraitzaile eta sakontzaile bikaina. Geroztik, BEETHOVEN azalduko zaigu, aurreko guztien lanaren aztertzaile eta SINFONIA sekulan ezagutu ez den mailetara eramango duena.

MOZART -en lehenengo sinfoniak, atseginak eta finak dira, garai hartako giroari erantzunaz eginak. Bere azkenengo sinfonietan ordea, beste sakontasun bat aurkitzen da; gai aldetik, orkestazio aldetik, instrumentoak erabiltzeko moduarengatik...

40 garren Sinfonia, azkenengoetako horietako bat da. 32 urte zituela konposatua, eta ezagunetako bat dudarik gabe. 1791 garren urtean, Viena-ko Burgtheater-en azaldu zuen. Dirudinez, ez zuen halako arrera honik jaso; atsegina baina sakonagoa bait zen eta garai hartako giroan, gauza zailak entzuteko ez zuten gogo handirik ipintzen. Bestalde, jotzailearentzat, zailtasun handiak zituenez, eta hauek saiatzeko aukera gutxi izaten zutenez, ez zen oso maiz entzungo, eta gainera ba daiteke, behar zen sakontasunik gabe joa izatea.

Noski, SONATAREN formari jarraitzen dio, eta 4 mugimendu azaltzen zaizkigu. Hirugarrena MINUETTO, garai hartan "modan" zegoen dantza sartzen du, ohiturari jarraituaz. CODA-k ere, garrantzi handia dute. Klasikotasun bete betean dago Mozart-en lan osoa, eta ala izanik, Sinfoni hau ere, giro hortakoa dugu.

| I. ALLEGRO | IRITZIA: |
|---|---|
| A 0'00" | |
| B 0'47" | |
| coda 1'23" | |
| A 1'53" | |
| B 2'23 | |
| coda 3'10" | |
| A B 3'50" | |
| A 5' | |
| B 5'30" | |
| coda 6'48" | |
| - - - 7'33" | |

| II. ANDANTE | IRITZIA: |
|---|---|
| C 0'00" | |
| 2'17" | |
| coda 3'02" | |
| C D 3'22" | |
| C 4'33 | |
| D 6'39" | |
| - - - 7'42" | |

| III. MENUETTO | IRITZIA: |
|---|---|
| E (minué) 0'00" | |
| F (trio) 1'40" | |
| E (minué) 3'28" | |
| - - - 4'18" | |

| IV. ALLEGRO. FINAL | IRITZIA: |
|---|---|
| G 0'00" | |
| H 1'03" | |
| coda 1'32 | |
| G 1'53" | |
| H 2'57" | |
| coda 3'25" | |
| zubi 3'45" | |
| G H 3'55" | |
| G 5' | |
| H 5'37" | |
| coda 6'07" | |
| - - - 6'35" | |

| JOTZAILEAREN GAIN IRITZIA: | TANTOAK 0 - 4 bit | |
|---|---|---|

## OPERA

### F. ESKUDERO (1913)



Donostian jaioa. Donostiako musika etxetik, Madridera joan zan ikastera. Frantzi eta Alemanin, Paul Dukas, Le Flem eta Wolf-ekin aurreratu zituen bere ikasketak. Bere musika lanen artean, garrantzitsuenak hauek dira: Cuarteto en Sol, Euskal konziertoa (Piano-Ork), Illeta (Oratoria), Aranzazu (Poema sinfonikoa), Zigor (Opera) Biolontxelo eta orkesta konziertoa...

Oso gizon langilea, gaur egunean, Donostiako konserbatorioko zuzendaria da. Euskal morfologia oso sakonean ezagutzen du eta idaz lan ugari egiten ditu gai honetaz. Txistuaren posibilitateak ere sakondu ditu, eta bide berriak urratu ere.

Bere musikan, euskal sena bizi bizia sumatzen da, baina ez ditu eresi ezagunak erabiltzen. Berak sortzen du, euskal musika berri bat. Oso orkestadore ona, bai forma handietan bai txikietan ere tarte zoragarriak lortzen ditu. Wagner, Strauss, Hindemith, Penderecky.., dudarik gabe, Eskuderok beste edozein musikalarien antzera, horrelako iturriak ezagutzen ditu. Halaz ere, hauek guztiak, euskal egituraz eta bere nortasunez osatzen ditu.

Dudarik gabe esan dezakegu, Eskudero dugula gaur eguneko Euskal musikalari ospetsuenetako bat, eta bere bide urratzeak, jarraitzailerik behar duela. Ba ote da?

Nafarroak Errege bat behar du. Etsaiak nonahitik sortzen zaizkio. Hegoaldetik batzuek, mairuak musulmanak. Eta ifarraldetik besteak, orain oraingoak-wikingoak, normandarrak Baiona-ko Itsasaldean bait dabiltza egun hauetan gora eta bera, gelditu gabe.

Orain arte, ondo zaindu du hegoaldea, Tudela ingurua, Aibar Nagusi, Gartzea Buruzagiak. Baina gaur ez dira nahiko Buruzagiak. Buruzagia, nekazari bat izan ohi da; gudatea bukatzen denean, bere soroak goldatzera bihurtzen den nekazaria. Gaur "Errege" bat behar du Nafarroak. Nafarroako mugak ondo zaintzeko guda prestatzen biziko den Errege bat. Beste egitekorik gabe.

Aibar-ko Gartzea da Nafarroako Errege gai jatorra. Berak zuzendu ditu orain arte Tudela aldeko gudua, burruka gogorrak. Eta berak zuzendu ditzazke ederkitxo, hemendik aurrera Baiona aldetik sor ditezkeenak ere. Baina Gartzea hil egin da, hain zuzen, Nafarroak beharrik beharrena zukeen garaian. Seme bat uzten du, bai, egunen batean aitaren urratsak jarrai ditzazkeena; umea da, ordea, oraindik. Hilabete gutxiko ume txikia, Santxoi Gartzeiz.

Baina, bitartean, Gartzeak ba zuen anai bat ere, Zunbeltz. Gartzea hil denean, Zunbeltz-i Nafarroako Erregea izanahi zoro bat sortu zaio barruan. Eta gaur edo bihar Santxol txiki hark Erregetza kendu diezaioken bildurrez, hor sortzen zaio baita bere iloba txiki hura hiltzeko asmo makurra. Erraz egin dezake bere egitekoa. Gaua dela nahiz egun, ba du sarrera bere anai zenaren etxean. Aibar-ko jauregian. Eta etxeko guztiak lo daudela, inor igerri gabe, erraz egin dezake bere egiteko izugarria.

Baina Aibar-en, nagusi zenaren ordez ba da morroi jator eta leial bat: Urdaspal. Gartzeak hiltzerakoan Urdaspali eman dio, bere etxea eta bere semea zaintzeko agindua.

Morroi zintzoak ikusten du umearen arriskua. Bildur da, Zunbeltz-ek hilko ote duen. Eta horregatik gauero gauero, inori esan gabe, seaska trukaketa bat egiten du: bere seme Urko, Santxol-en seaskan eta Santxol Urko-renean ipintzen ditu, ixil-ixilik.

Halako batean, sartzen da Zunbeltz Aibarko-ko etxean, gau ilunean. Eta ixil ixilik seasketara joanda, hor ematen dio izugarrizko labainketa, ustez bere iloba Santxol txikiari, baina egiazki Urdaspal-en seme Urko haurrari. Eta berehala, ustez bere bideko beastopak baztertu ondoren, hasten da, hasi bera ere, anai Gartzea zena bezala, etsaien kontrako guda burruketan. Baina, beti eta beti, kukuak oker jotzen dio. Ez du garaitza bar ere iristen.

Bitartean, Urdaspal zintzoa, haurraren heriotz ondoren, Aibar-tik aterata, bere emazte Otxandeta-rekin eta Santxoi txikiarekin, Urdaspal izeneko bere jaioterrira joaten da, han, Pirineo mendi-menditara. Santxol guztien ustez hila da eta Urdaspal-en seme Urko-tzat daukate mutila herriko guztiak. Eta halaxe hazitzen dute Urdaspal-ek eta Otxandeta-k ere guztien aurrerako beren seme Urko balute bezala.

Urdaspal herrian ba da baita emakumezkoen Monastegi zahar bat ere. Eta haraxe biltzen da, haindik laister, Gartzearen alargun Andre Urrea. Eta urte gutxi barru baita Monastegiko Abadesa izatera iritxi ere. Halaxe, bere semeak jakin gaberik, ama bera da Santxol-en urratsak zuzentzen dituena, gaur edo bihar Nafarroako Errege izatera hel dadin. Urdaspal du Andre Urrea-k laguntzaile, lan berezi hortan.

Urteak joan eta urteak etorri, haundi alean, hazten hasi "Urko" ere, bere biziko guda burrukak egiten, Pirineo beste aldean, Baionaren jabe diren wikingoen aurka.

# IX SINFONIA

CONCERTGEBOUW AMSTERDAM ORKESTA
HOLANDAKO IRRATI KOROA
L. REBMANN Sopranoa
A. REYNOLDS Kontraltoa
A. RIDDER Tenore
G. FELDHOFF Baju

EUGEN JOCHUN Zuzendari



1824 garren urtean aurkeztu zen, Bienan, Beethoven beraren zuzendaritzapean. Bere gorreriarengatik, ez zen entzunaldi honen arrakasta izugarriaz konturatu, burua jiratu eta jendea txaloka ikusi arte.

Lan hau egiterakoan, sekulan baino duda gehiago izan zituen. 1815 urtean ekin zion lan hori. Baina tartean beste zenbait lanekin jardun zuen. 1823 urtean, oraindik ere ez zuen ahotsa sartzea erabaki.

Sinfoni honen helburua hau zen: "Gizon guztiak anai dira". Azken mugimenduan Schilleren olerki bat azaltzen da, lan guztiaren gorenaldi moduan.

Beethovenen sinfonismoaren barnean, IX garren SINFONI hau, beste guztietatik aparte gelditzen da, ez du eboluzio bat jarraitzen, daitekenez, beste guztien erresumen bat ere izan zitekeen. Gauza da, bide honek, Sinfoni honek urratutako bide honek ez duela jarraitzalerik izan eta bertan dago bere azken muga.

I ALLEGRO MA NON TROPPO
UN POCO MAESTOSO

Gaia, HELBIDEA, Destinoa da. Sarrera lainotsu bat eta berehala adierazpena gogor. Musika-gaien borroka bat da. Zein da gure helbidea? Nora goaz?

II MOLTO VIVACE

Gaia, INDARRA, Sasoia. Scherzo indartsua. Espirituak, inpernu dantza batean dabiltza.

III ADAGIO MOLTO E
CANTABILE

Gaia, MAITASUNA. Giro ezberdina. Lasaitsua. Gaia eta bariakuntzak. Errealitateak mozten du une batean (Tronpetak...) baina berriro maitasuna...pakea.

IV PRESTO. ALLEGRO ASSAI

Oso sarrera gogorra. Alaitasuna da gaia. Gaia biolontxeloak azaltzen dute. Gero azkenik, orkesta ondoren, abesbatza eta solistak.

**Oh Freunde, nicht diese Töne!**
Adiskideok! Ez gaitezen doinu zarata hoietan eror.
**Sondern lasst uns angenehmere**
Beste zerbait alaiago eta atseginagoarekin has gaitezen!
**ODE AN DIE FREUDE** ALAITASUNAREN ABESTIA
**Freude, schöner Götterfunken,**
Alaitasun, Jainkozko argi eder,
**Tochter aus Elysium**
Eliseon jaioa.
**Wir betreten feuertrunken**
Zure aldareruntz goaz, sutsuki.
**Himmlische, dein Heiligtum!**
Gogortasunak zatitua.
**Deine Zauber binden wieder**
Zure dizdiraz berriro batua.
**Was die Mode streng geteilt;**
Zure eragipen ongilea erdietsi arte.
**Alle Menschen werden Brüder**
Gizon guztiak anai izango dira.
**Wo dein sanfter Flügel weilt. Wem der grosse Wurf gelungen**
Zoriontasunak emandako egiazko zoriontasuna.
**Eines Freundes Freund zu sein Wer ein holdes Weib errungen,**
Eta andra zintzoa aurkitu duenak.
**Mische seine Jubel ein!**
ager dezala bere poza:
**Ja—wer nur eine Seele Sein nennt auf dem Erdenrund!**
Lurraren borobiltasunean, anima zoriontsu batean jabe bait da.
**Und wer's nie gekonnt, der stehle**
Eta lortu ez duenak
**Weinend sich aus diesem Bund.**
Zoritzgaitzpean negar egin beharko du.



**Freude trinken alle Wesen**
Izadiaren magalean.
**Aus den Brüsten der Natur,**
Denok dastatzen dute bere poza.
**Alle Guten, alle Bösen**
Nola gaizto, ala zintzoek
**Folgen ihrer Rosenpur.**
Bere bide loretsutik jarraitzen dute.
**Küsse gab sie uns und Reben,**
Laztantzen gaitu, asetzen gaitu,
**Einen Freund, geprüft im Tod,**
heriotzeraino adiskidetasun zihur bat eskeintzen dugu.

**Seid umschlungen, Millionen!**
Besarkatu zaitezte denok!
**Diesen Kuss der ganzen Welt!**
Laztan honek batu dezala mundu osoa!
**Brüder—überm Sternenzelt**
Izar gainean anaiok.
**Muss ein lieber Vater wohnen.**
Aita maitagarri bat biziko da!

**Wollust ward dem Wurm gegeben**
Mozorroei atsegina ematen die
**Uns der Cherub steht vor Gott**
Eta jainkoruntz doa kerubina.

**Ihr stürtzt nieder, Millionen?**
Oraindik zalantzan ahal zaudete?
**Ahnest du den Schöpfer, Welt?**
Ez al duzue aurkez ikusten Sortzailea?
**Such'ihn überm Sternenzelt!**
Izar gainean bila zazu.
**Uber Sternen muss er wohnen.**
Han aurkitu behar bait da.

**Froh, wie seine Sonnen fliegen Durch des Himmels prächt'gen Plan,**
Poz zaitezte bere eguzkia hegaka ikusiaz zeruan,
**Laufet, Brüder, eure Bahn Freudig wie ein Held zum Siegen.**
Jarraitu anaiok jarraitu, zuen bide alaitsuetatik.

ORERETA IKASTOLA
Anabitarte

IZEN ABIZENAK: [redacted]

MUSIKA KULTURA

Egilea FREDERIC CHOPIN 1810 - 1849
Lana I PIANO KONCIERTOA

Jotzaileak: PIANO: MARTA ARGENICH
Org. Senf. Londres Zuz. Cl. Abbado.

Oharrak - Allegro 4
- Romance
- Vivace

- Allegro ondo ostua.
- Romance fenomenala. "Pianoak lotzagiten du."
- Birtuosismoan erortzen da akaso.

Interpretazioa oso ona, emakume lorrena.
Bi gauz eskatzen die pianistei obra honek:
- Sentimentua
- Teknika

Iritzia 5
Allegroa asko gustatu zait. Oso ona da, nere iritziz. Karga sentimental handia du, eta oso arkona da. Gainera, belarriarentzat atsegingarria. Zati fuerte eta suabeen bidez lortzen duen kontrastearekin sentimental gero hori gehiagotzen du.
Romancean berriz, [illegible] daina gutxi gora behera ondar berdintsua da. Honekin esan nahi dut zati guzia oinbiko suabea dela eta ez dagoela zati fuerterik. Romancea en sentimentul giroz handitua dago. Obra, generalean oso ona eta lasaia. gero bat bera- nuevo sui azten duena [illegible]

Tantoak 4

**RAVEL** (Bolero) BUP 1 B TANTOAK 2'94

"Obra honetan, nahiko ulertu edo obra barrura sartu nahi ba duzu, ez da oso zaila. Obra honek, entzulea inguratzen du, eta entzulea obra barruraino sartu ba da, bere barru guztiak garbitzen dizkio. Nere iritzia, oso ona dela obra hau da. Bukaera oso ondo doakio, entzulea askatzen bait du, bestela entzulea jatzailetaz inguratua egongo litzateke berriro entzungo nuke" (4)

"Aspergarria egiten da. Polita da gutxi entzuteko baina 17 bider oso luze egiten da. Ritmoa ongi eramaten dute" (1)

"Izugarri gustatu zait, obrak erabat arrastratzen duelako entzuten ari dena. Batez ere ritmoak obsesionatu egiten du. Bukaerako, erabat obraren barruan zaude. Orkestazioa ere bukaeran oso lortua dago eta eresia ezin hobea da. Obra hau entzutean, ezin da kasorik egin gabe gelditu. Obrak, atentzio eta interes osoa eskatzen du" (4)

**H. PURCELL** (Maitagarrien Erregina) (Oberon) BUP 2 A Tantoak 2,87

"Nolaz esan hitzetan Oratorio polit hau? Horren naturala da lana, ematen baitu zu obra ikusten zaudela teatro barruan. Batez ere, udaberriak inpresionatu nau; musika eta abeslariak, aingeruak ziruditen. Orkestazioa oso ona, sarrerakoak asko egiten du obraren onean. CHORUS zatián, orkestazioa, klabezina, biolin, tronpeta eta solistak oso ongi abesten dute" (4)

"Era hauetako obrak, relajamiento oso bat egiten dute, konzentrazio bat ere, hori da gaur gertatu zaidana. Oratorioari buruz, obra maestra bat iruditu zait alde guztietatik, bai musika, bai abeslarien aldetik. Gehien bat gustatu zaidana hasiera eta bukaera izan dira. Toke edo gauz espezial bat eman dio obra guztiari. Urtearoen artetik, zati onena, negua izan da (4)

BUP 2 B Tantoak 2,53

"Orkestan argi dago barroko kutsua, Hendel eta zenbaiten kutsua du. Ahotsak ordea jeneralki ez zait iruditu inungo bereiztasunik duenik, estiloz behintzat. Sinfonia behar ba da luzegia da. Urte aroetan ikusten da, batez ere udatik hasita, erritmo eta tonoaren jaistea, musika tristetuaz. Bukaera berriz animatua da, ongi gaiarekin. Hau entzun ondoren argi ikusten da, barroko garaiean, musika solas bat zela, entzuteko gauza, gai sakonik gabe, gehiegi expresatu gabe" (2,5)

"Zoragarria, alaitasunez beterik, eguzkien dizdirekin dantza eta kanta dezagun. Bibrazio horik guztiak, emozio horik guztiak patxadan. Bai, Udaberriak ere goxotasunarekin dakarkigu zoriona, guztiok bihotzak alai ditzagun... udazkenean esnaturik. Negua hotz eta patxarosoarekin. Alaitu, benga, alaitu... Zoragarria" (4)

## Konziertoak

Guk ematen dugun musika, "Konserba" musika da. Bere balio handia du noski, eta gaur egun, artegile asko, hontara bakarrik dedikatzen da.

Egitazko musika, konziertoan egiten dena da, eta ezberdintasunak ikaragarriak dira, bai soinu aldetik (nahiz eta tresna geroz eta hobegoak izan) bai giro aldetik. Ikasleak ezagutu behar luke konziertoaren mundu hau, eta momentu horretan berpizten eta sortzen ari den artelana bizitu.

Tamalez, posibilitateak oso gutxi dira. Gaur egun oso konzierto gutxi ematen dira inguru hauetan, eta kalitate eskasekoak gehienak. "KULTURA MUSIKAL" edo delako erakundeak ematen ditu konzierto onak, eta 6 sarrera izaten ditugu (momentu hontan ez ditugu) konzierto hoietara joateko.

Bai konziertoa hasi aurretik edo eta tarte eta bukaeran, gure artean komentarioak egien ditugu. Oso mundu berezia dela nabaitzen dute ikasleak eta oso gustora joaten dira.

Baina oso gutxi da hau, i) helburua behar den bezala bete nahi bada.

## Grabaketak

Ikastolan egiten dena, sensibilizatze eta interes sortzailea besterik ez da. Etxean, lagunen artean sakondu behar dira espresio eta edertasun bide hauek. Obra bat behin entzunda bakarrik uzten ba dugu, bere barne egitura eta mamia emateko dagoala esango genuke. Berriz eta berriro entzun behar dira, eta hori ezin da eskolan egin.

Grabaketaren alderdi hau, oso oso garrantzikoa da, Ikastolako ekintzari jarraipen bat eman nahi ba zaio. Etxe guztietan dute "casette" bat eta zintak entzuteko modua. Soinuaren kalitatea ez da oso ona izango, baina afizioa sakontzeko oso medio interesgarria eta merkea dela derizkiot.

Honengatik, grabaketa serbitzu bat, ere muntatua dugu. Ikasleek bere caseta ekartzen dute, eta zer nolako diska grabatzea nahi duten papertxo batean idazten dute.

Grabaketa asko eskatzeak, interes handia dagoela adierazten du, eta eskariaren araberan, zeintzuk diren bere gustoko musika lanak jarraitu dezakegu.

Hontaz gainera, diskak erosi nahi dituztenean, sarritan "Bersio" berezien errekomendazioa eskatzen dute, eta era hontan laguntzen zaie.

Musika tresnetaz ere, adibidez, erabiltzeko erak eta konsejuak ematen zaizkie.

Arazoak

Denbora: Astean klase bat gutxi da. Klase bakoitzean, ordu bete bat gutxi da. Ordu t'erdiko klaseak behar nituzke.

Interpretaketa: Oraindik gutxi dira, besteen aurrean azaldu eta jotzen dutenak.

Iritziak: Ahozko iritzi gutxi ematen da. Idatziz nahiago dute.

Konzentrapena: Harrigarria bada ere, isiltasun prolemarik ez dut izaten. Audiobisual gelak sortzen du halako giroa eta ez dago arazorik.

Medioak: Orokorrean onak dira. Soinuaren kalitatea, minimo batera iristen da. Diska gutxi (etxekoekin moldatzen gara). Momentu hontan, grabaketa tresnarik ez dugu, eta hau oso grabea derizkiot. Gela oso girokorra da.

Kritika sentidoa: Eskema sakon bat, COUn ematen da, Artearekin lotua. Ez ote den beranduegi pensatzen dut.

Teoria: Ematen diren eskemak oso sinpleak dira, baina esamina jarri behar izan dut, hauek serioan hartzeko (beti esamina...)

(ANTTON MENDIZABAL)



# PLASTIKA





# METOLOGIARI BURUZ HITZAURRE GISAN

Plastika, irakaskintza barruan planteiatzerakoan eta bide berriak jorratu nahiean, esperimentatu ditugun zenbait arazoen azalpen bat egitea litzateke idazlan hauen helburua. Proposamen bezala azaltzen dira gaur egungo irakaskintzaren muga konkretu, berezi eta nahiko atzerakoien barruan sortutakoak, noski. Muga horik, giza-elkarte honetakoak sortu dugun irakaskintza hertsi eta pixuan kokatzen direnez, plastikak ere mundu baldintzakor eta hotz horretan bere paper berezia jokatzen duela kontutan har dezagun (Hau guztia, justifikapentzat har daiteke gehienetan eta behar bada, nere frakaso askoren arrazoi erdi-faltsua). Azkenean zera esatera nator: Amets teoriko liluragarriak alde batera uzten ditudalarik, esperientziaren errealitateak eskaini diguna azaltzea soilik, eta informe gisan, landutako metologia aditzera eman nahi nuke.

Ekin diezaiogun bada hariari, praktikotasunari, pedagogiaren "kronikari"... helburuetatik gehiegi despistatu gabe (ikus URRATS 0), helburu hoiek erabat finkaturik ez badauzkagu ere.

## METODOLOGIA-1- GAIAK LANTZEKO ESKEMA.

Metodologia berez, lanerako bide bat besterik ez da. Nere ustez, abiapuntu bat izan ezik, aurrerabideak ere eskaini behar dizkiguna.

Oinarrizko lege bezala eta 5 garren basikatik B.U.P III garrenera egin ditugun esperientzi guztietan honoko eskema hirukoitza izan dugu eredutzat:

OBSERBAKETA (Oharpena)

ERREFLESIOA (Azterketa, sakonketa)

ESPRESIOA (lanen taxuketa, azalpena, komunikazioa.)

SENSIBILIZAZIO bide guztiak ardatz bezala erabiltzen ditugularik.

(Esan beharra dago eskema hau, zuzendutako lanetan erabiltzen dela, hots, "gaiak" lantzerakoan. Libreki edo zuzendu gabeko lanak, bere bide pertsonala daramatela (hasieratik bukaeraino) eta hauetan metodologia eredurik ez dugula azalduko. Bi alderdi hauetatik (zuzendua eta librea) lehenengoari dagokion metodologia eskema landuko dugu idazlan hauetan oraingoz.

Jo dezagun, programaketa bat aldez aurretik itxuratua daukagula eta bertan, gai batzuk sakontzea egokitzen zaigula; dela MARGOA... ARGIA ... ITSASOA... ESKUA... AURPEGIA... IKURRA... edo beste, gai horri inguraketa bat egiterakoan, lehen aipatutako eskemaren lehen ataletik abiatzen gara beti; obserbaketa beraz lehenik.

## OBSERBAKETA

Gure zentzuak erabiliaz, gai horren bila joaten gara. Ikusmena, Entzumena, Ikumena eta ahal izanez gero edo gaiak errazten badu Usaimena eta Gozamena ere erabiliaz perzepzio mailan. Gure gorputzetik hasiaz beti, gai horrek gure gorputzarekin duen zerikusia azterturik. Hots: FORMA, MARGOA, ESPAZIOA, ARGIA... gaiak lehenik gure gorputzean obserbatuaz, eta gaiak gure gorputzean ez ba dira azaltzen (itsasoa, hirigintza, perspektiba, landaredia...) gure gorputza erabili sensibilizazio mailan, esperientzi hildotik, keinu, antzerki, talde errepresentazioak, hotsak eta jokoak sorturik.

Gure gorputzetik hasita, poliki poliki inguruko errealitatera igaro, konparaketak ugarituaz. Ezagunetik, ezezagunerako bidean, gai hori inguratzen duten zenbait gertaera, kontexto eta baldintzak obserbatuaz.

Sensibilizazio batera heltzen gara, eta "inpresioen" munduan sartu. Jokoak erabiliaz, deskubrimenduei, inpresio berriei eta ikerketari bidea zabalduaz. Ez gaitezen ahaz, sensibilizazio hori lortzeko, behar ditugun bide guztiak urratzera beharturik aurkitzen garela. Hots: irakasleak askotan montaje berezi batzuk prestatzen ditu (diapositibaz, materialez, efekto bereziz, probokazioa, etab.).

Adibide bezala, 5 garren mailan eta MARGOA gai bezala harturik, Errenderiako ikastolan landutakoa azalduko dut hemen, metodologiaren eskema praktikara nola eraman den azalduaz. Adibide hau, hiru ataletan zatiturik agertuko dut, beste "gai" batzuri ere aipamenak eginaz.

## Margoa. 5. basika (OBSERBAKETA)

Lehen aipatu dudan bezala, gure gorputzaren obserbaketa litzateke lehen pausoa. Hala bada MARGOA gaia hartzen dugularik, gure gorputzak eskaintzen dizkigun margoak obserbatzera iritxiko gara lehenengo ekinaldi horretan. Begiak, ilea, azala, azkazalak,.. ubelak, granoak, eta abar elkarren artean konparatuz, klasifikazioak egiten ditugu. Multzoak eginaz (hile-horiak, hile-beltzak, begi-urdinak..). Bakoitzak bere gorputzean topatu dituen margoen zerrenda egin eta abar. Hurrengo baterako eta ariketa bezala, kalean, etxean edo ikastolan gorputz margo hauk obserbatzea izaten da, marrazkiz edo idatziz obserbatutakoa gelaren aurrean azalduaz.



**Bigarren pausoa:** Gure jantziak obserbatzea. Jertseak kendu eta gelan ifinitako "7" zintzilikailuetan margo klasifikaketa bat egin. Txandaka erropa aldaketa eginaz eta margo konbinaketak beren jazkeran esperimentuaz (bide hontatik zenbaitetan disfrazetan sartu izan gara). Jantziak zazpi multzoetan (margo multzoak) daudelarik, banaka banaka hartu eta konposizio bat egin jertse guztiekin (oholbeltzean edo mahai, lur gainean..) konposizio hori bakoitzak paper batean egin... dauden margoak.

**Hirugarren pausoa:** Gelaren margo azterketa egin. Dauden margoak obserbatu eta konparatuaz beren funtzioa aztertuaz, zein materialekin eginak... (esmalte, kola.. plastiko) eta foku eta argi efektoz (iluntasuna eta argitasuna ere erabiliaz) margo itxura aldaketa bat egin.

**Laugarren pausoa:** Inguru medioaren margo irakurketa bat egiten dugu, diapositibak ere eragingarri bezala erabiliaz eta bestelako materiala ere eskutartean izanik (argazkiak, etxetik ekarritako argazkiak, rekorte margo katalogo, margo materiala...) eta erakusketa txikiak eginaz, margo klasifikazio eta margo materialari begiratuaz. Hala bada, LANDAREDIA (hosto, lore..) HERRIA (denda, margo, industri, kale..) eta abar taldeka lantzen dira, talde bakoitzak gai bat hartuaz edota talde bakoitzak margo bakar bat hartuaz. Obserbaketa lana beti. Erresultatuari garrantzia kenduaz. Ikerketa bidetik materialak jasoaz eta mundu ezezagunetara urreratuaz. Jokuak ere asmatu izan ohi dituzte (gorriak beltzen aurka ia nork asmatu beltzak edota gorriak diren elementu gehiago, ia nork asmatu margoa egiteko teknikak, edo imajinazio, ipui, asmakizun jokuak).

Azkenetarikoak: Arte mailan ere, diapositibaz eta laminaz. Margoaren obserbaketa egiten dugu, konparaketak eginaz (Klee-Picasso-Delauny-Matisse..) eta euskal pintoreen lanak ere begiratuaz (Zumeta-Sanz-Ortiz de Elgea...) baina arte mailan batere sakondu gabe eta imajen mundua aberasteko asmoz.

Oharrak: Margoari buruz aipatu ditudan OBSERBAKETA bideak, beste zenbait "gaietan" ere antzekotasun batean mugatzen dira, nahiz BUP-en, nahiz txikiekin. Bestalde ere zera: lau pauso edo bost seinalatu ba ditut ere, horrek ez du esan nahi bost ekinaldietan betetzekoak direnik... eta askotan ordenakuntza hau ere ez da hain garbia gertatzen (Arte mailako diapositibak edonoiz erabiliak izan direlako, edota, kaleko obserbaketak gelakoaarekin nahastu ditugulako). Ekinaldi bakoitzerako bide batzuk aldez aurretik ezarriak baditugu ere, ekinaldiaren harian, inprobisaketak paper nagusia jokatzen du, ekinaldi bakoitzari askatasuna

eta flexibilitatea eman behar bait zaio. Gelaren erritmoa errespetaturik eta irakasle bezala alarde gehiegi egin gabe (zenbait kasutan ekinaldiak aurretik nahiko ondo prestatu behar ba dira ere).

Argi ikus daitekeenez, NATUR ZIENTZIEKIN eta GIZARTE GAIEKIN lotzeko erraztasun handiak eskaintzen dizkigun gaia da, eta era honetan askotan lotuak izan dira (kontu! ez marrazki hutsetan, idatzitako gai bat aipatzen soilik; baizik eta, azterketa bide bezala margo munduaren interpretazioa eta obserbaketa erabiliaz).

## ERREFLEXIOA

Erreflexioa berez, atal edo bide berezi bat bezala erabiltzea, ez litzateke egoki izango, zeren, berez erreflexioa ez da "aparte" edo soilik gertatzen den prozesu mentala baizik eta, obserbaketa bertan gertatzen dena eta ez dela "gerorako" utzi behar. Gainera honela tratatuz gero, eskema berez, pixuegia, astunegia eta zatituegia gertatzeko arriskuan dago. Guk lantzen dugun eskema hau, hiru ataletan banatzen ba dugu ere osotasun baten barruan planteiaturik aurkitzen da praktikan.



Erreflexioak, gaiak sakondu egiten ditu eta gaien zergaitia non dagoen bilatzera joaten da. Non oinarritzen den, eta beraren errealitatearen baldintzak aztertzen ditu. Erreflexio mailak, adinari lotua behar du izan, eta maila desberdinetan, erreflexio neurriak, desberdina izan behar du.

Erreflexioak arrazonamendu bat eskatzen du eta konklusio batzutara heltzen gara. Gai horren beste esperientzietan, eredu bezala erabiliaz eta honela arintasun eta bizkortasun perzeptibo bat lortuaz.

Erreflexioa, obserbaketa bakoitzaren barruan edo ondoren sortzen den atala denez gero, (eta espresio lanak, plastika erresultadoak, egitea halabeharrez eskatzen ez duenez) SENSIBILIZAZIOAREN ardatza mamitzen du eta gaia edukiz aberastu.

Askotan gertatu ohi da, erreflexio bidetik, Plastika hutseko gaietatik urrutira gaitezkela (A.b. : MARGO-aren fisikara hel gaitezke edo ta margoaren kimika tekniketara). Halaere urrutiratze hau interesgarritzat ematen dugu, Plastikari bere zentzu orokorra ematen diolako eta plastikak jakintza munduan (ere) duen lekua aztertzen delako. Plastikak nolabait, abiapuntu orokor bat eskaintzen du, eta zentzuak erabiliaz, inguruko errealitatearen irakurketa eta erreflexioak, erreal munduaren eta bizitzaren osotasuna deskubritu araz dezakeelako.

**Margoa. 5. basika (ERREFLEXIOA)**

Gure gorputza obserbatzerakoan: gure margoetatik abiaturik, enda edo arraza munduaren barruan sartzen gara batzutan, bestetan berriz azalaren pigmentazioaren arrazoietan, bestetan, "mimetismo" exenpluak abere mundura eramaten gaituzte eta abeldiak eskaintzen dizkigun margoetan murgildu (bai estetika aldetik, baita funtziotasun aldetik ere), giroa, ekosistemaren margoak, eta abar eta abar.

Gure jazkera obserbatzerakoan: egunero jaiki orduko, jazterakoan, gure gorputzean jartzen ditugun margo konposaketak aztertuaz. Estiloaren arrazoiak ikusiaz, eta baldintzak ere aztertuaz: Neska-mutila, Zahar-gaztea, Udakoak-Negukoak, Euskalerrikoak-Afrikakoak... eta elkarrizketa mailan zenbait konklusiotara heldu (diapositibak, errebistak... erabiliaz ere). Lan hauk batzutan idatziz lantzen ditugu, bestetan elkarrizketa hutsetan geratzen dira.

Gure gelaren obserbaketa ondoren: beste gelekin konparaketak egiten ditugu (ez ikastolakoak bakarrik, noski). Horrela, margotzeko arrazoiak: margo hau zergatik?.. beste hura?.. argitasuna lortzeko,.. zikina ez ikusteko... hau gehiago zikintzen da... beste hura beroagoa da... Etxekoak, dendetakoak.

Inguruaren margo irakurketa egiterakoan: maila honetan, margo bakar baten erreflexioa egiten dugu. Hots: inguruak aberastasun izugarria eskaintzen duenez, zail izaten da adin hauetan konklusio batzutara heltzea. Margo bakarra esaterakoan, margo horrek dituen aldaketa, degradazioak ere sartzen dira (kearen beltz-gris-zuriak, orlegitasuna landaredian...) Hala ba, orlegia, grisa, gorria, urdina.. hartuaz errazago egiten zaigu sakontzen eta konklusio bezala irtenbideak ere erabilgarriago bihurtzen zaizkigu. Ikus: KLASIFIKAPENAK (materialak ekarriaz eta erakusketak prestatuaz)

Hostoen orlegitasunak
Margo katalagoen degradaketak (gamak)

NOLA EGITEN DIREN (fabrikapenak, prezioak, kalitateak..)
ERLAZIOAK (Kultura eta herriak kontutan harturik, propaganda..)
SINBOLOGINTZA (Ikur bezala, ikurrinak, itsas kodigoak, trafikokoak..)

Hau guztia aztertu arte, ez gara espresiora pasatzen, hots, espresioko lanak erraz sortzen badira ere, imajinazioa eta kreatibitatea lantzea derrigorrezkotzat jotzen dut. Eta ez dezagun pentsa klase hauk formulazio hutsetan mugi behar dutenik (arriskurik ba da). Are gutxiago! ..espresio lanak ez dira "gerorako" utzi behar, eta gelaren erritmoak eskatzen duen neurrian landu behar da dena dudarik gabe. Prozesoa da beraz kasu honetan garrantzi handia hartzen duena baina erresultadoa ere behar beharrezkoa da Plastikari mamitasun bat eman nahi badiogu.



## ESPRESIOA

Espresioaren atal hau gehienetan garrantzi handikotzat jotzen delarik, guretzat erresultado maila honek, aurretik eraman den prozesuak hainako garrantzia hartzen du. Oinarriak prozesu horretan ezartzen ditugularik, erresultadoa bide horren azkeneko pausoa besteriz ez litzateke. Gure helburuetan ez da sartzen "artista" trebeak sortzea (hala gertatzen bada hobe) baizik eta gela osoarekin lan eginaz (ez bakar batzuri begira) sensibilizazio eta perzepzio kapazitatea lortzea. Espazio-Margo-Forma mundua gureganatzea eta bertan desarroilo pertsonal bat bilatzea, iniziatibari, espontaneitateari eta kreatibitateari bideak eskainiaz.

Argi eta garbi utzi beharra dago, espresioaren atal honetan bi alderdi lantzen ditugula: Bata, prozesuak eta zuzendutako lanak eskatzen duena eta bestea, erabat librea edo hobe esan, gai horren inguruan edo berak aukeratutako beste inguruan, nahi duen erantzuna eskaintzea. Kasu honetan, azterketa, ikerketa eta prozesua bera, programatu gabe geratzen da eta kontrolik gabekoa.

Lehenengo bideari jarraituaz eta orain arte azaldutako prozesuan, espresio lanak edo erresultadoak (paperean eginak, hotsen grabaketak, antzerkiak, eskultura gisakoak, kolaiak, buztin...) ez dira bukaeran bakarrik azaltzen, eta prozesu osoaren momentu gehienetan azaltzen direla esan beharra dago. Absurdoa bait da, momentuak eskatzen dituen beharrak gerorako uztea. Ez luke logikarik izango. Metodologiaren eskema pixuegia egingo litzateke. Espontaneitatea ere antzutua. Ez bait da matematikako metodologiaren eskema bat. Plastikaren metodologia gehiegi sistematizatzeak, arriskua bait dakar.

Irakasleak zuzentzen dituen ariketak (dirijitu alegia) espontaneitaterako irtenbiderik ez badute uzten gure helburuekin kontraesan latz baten aurrean aurkituko ginateke. Erantzunak ezberdinak izan behar dute eta uniformidade bide guztiak baztertu behar dira. Erresultadoak ez dira zuzendu behar.. baizik eta presentazio aldetik landu, lanaren bukaera zainduaz.. "ona" edo "txarra" hitza erabili gabe, gelaren eskuetan utzi kritika, lan guztien elkarrizketa sortzen denean. (gai hauei buruz beste idazlan batetan zabalduko naiz GAIAK AZALTZEKO eta ZUZENTZEKO ERAK lantzen ditudanean)

Hemen adibide zenbait ifiniko badut ere, erresultado adibideak ezer gutxitarako balio izango dute, erantzunak beti ezberdinak irtetzen direlako eta erresultado moeta konkretuak aldez aurretik ezartzea gehienetan, dirijismo batean erortzea izango litzatekeelako. Eskema honen lehenengo bi ataletan (Obserbaketa eta Erreflexioa) metodologia bere exenpluekin azaltzeak kontraesanik sortzen ez badu, espresioaren atalean bide batzuen ordez, informe huts bat egingo dut, erresultadoak mila eratakoak izan bai ditezke. Ez itzazue beraz erredugarritzat gahiegi onar.

**Margoa 5. basika (ESPRESIOA)**

Hara hemen margoa lantzerakoan, eskemaren prozesu osoan azaldutako zenbait erresultado edo emaitzak. Bakarkakoak eta taldean eginak.

Bakarkakoak: Gorputzaren obserbaketa egiterakoan, gure gorputzetan azaldutako mantxa, margo eta abarren marrazkiak margoz interpretatuak. Neurriz handituak eta folioetan edota folio zatituetan. Klasifikaketak eginaz (azalekoak, hiletakoak, margo berdinekoak..) edo sujestio hutsari begiratuak. Arkatzez, edo rotuladorez, (argizariak ere zenbaitetan. Jaskerari begira, jertseekin egindako konposaketari erantzun libreak, nahi den material eta neurritan, kopia gisan edo astrakto interpretaketan.

Margo bakar bat lantzerakoan, degradaketa teknikak ikusiaz, margo bakarrarekin egindako marrazkiak, franjak eta azkenik hortzadarrak. Rekorteekin kolaiak (margo berdinak erabiliaz) eta hosto belarrekin konposaketak eta interpretaketa libreak.

Izadiaren interpretazioak, monokromismoari ere begiratuaz; zeru, itsaso, .. edota margo ezberdinak ere erabiliaz bainan margo bakoitzaren degradaketak eta gamak landuaz.

Arte mailako laminak eta diapositibak interpretazio librean, inspirazio bila eta margo biziak bilatuaz (kubista, espresionista.. fauvista.. konstruktibistak.. batik bat).



Ezinezkoa litzateke hemen erresultado era guztiak azaltzea, aipatuetatik at, zenbait urtetan edo kurtso ezberdinetan, beste asko azaldu bait dira.

Libreki eginikako lanak, normaletan, momentuan burutik edo eskutik sortutakoak izan direnez, ezinezkoa da beren erreferentzia egitea. (mundua "margoz gora", hots, mundua margoz hankaz gora jarri; mantxakin jokuak, lau marrazki eskema berdin eta lauetan margo ezberdinak edo aldatuak erabili, astrakto interpretazioak, lore marrazketa; galtzerdi zahar eta zapata zahar, zein jostailu hautsien margoketa eta apainketa. etab... etab..).

Taldekoak: Gorputzarekin talde multzoak egin margoei begira.

Jazkerakin antzerki, desfile eta mimo jokuak..

Muralak taldeka egitea, gai libre bezala edo ta bakarkako lanak zenbaitetan hiru edo lauen artean egin.

MARGOAREN JAIALDIA: Taldeka gelaren aurrean espektakulo bat eratzen dugu, margoa gai hartzen dugularik. Talde bakoitzak aldez aurretik bi edo hiru aurreproiektu egiten ditu eta teknikoki posible dena aukeratzen da, irakaslearen kontseiluarekin.
Margoa da beraz azaldu behar dena eta hortarako behar dituzten errekurtso guztiak erabiliaz (Argi, paper, diapositiba, dekoratu, sua, linternak, paper, kometa, globo.. argazki..)

Margoaren jaialdietan (urtean zehar) azaldu diren azalpenatik batzuk aukeratuko ditut, (taldeak 5 edo 6 ikasleek osatutakoak dira).

- ARPEGI MAKILAKETA eta antzerki joko gidoi gabekoa.
- JAZKERA ERAKUSKETA moda desfileak, margo konbinaketakin jokatuaz.
- KOMETA GLOBO eta haizera daitezkeen tresnaren ikusketa ikastolaren ingurutan.
- IKURRIN motak asmatu eta azaldu, sinbologia landuaz, desfile, prozesio eta dantzak erabiliaz.
- ARGI, FOKU eta linterna edo antzekoekin iluminaketak azaldu ikastolako gela ilun batetan. Diapositibak ere eginaz; giro ezberdinak sortuaz.
- MURAL baten sortzea zuzenean gelaren aurrean, espraiak eta margoz betetako globoak lehertuaz.
- ESKU eta OIN pintura mural eran.
- Eta abar.

Talde guzti hauk bi orduko saioaldi batetan (sei talde gútxi gora behera) beren ekintzak edo agerraldiak ordenatu behar dituzte, jaialdiak dinamika bat izan dezan. (ez dago esan beharrik, aldez aurretik hau guztia eratzeko lan eta buruhauste askorekin arkitzen garenik.

Honekin ematen diogu amaiera gaiari eta beste gai batekin hasi baino lehen, erakusketa bat egiten dugu, jaialdiko materialak eta argazkiak erakutsiaz.

Bakarka egin diren lanak edo erresultadoak, dossier batetan gordetzen dira (gai bakoitzak bere dossiertxoa) lan libreak ere bertan sartuaz eta karpetatxo hori bakoitzak asmatu, gaiari lotuaz (azala edo portadakin).

Taldeka egiten direnak gelan zintzilikatzen dira eta zenbait grabazio balego ere gorde edo entzunaldiak egin berriz.

Erakusketak eginez gero, taldeko lanekin batera, bakoitzak bere ustez gehien atsegin zaizkion lanak dossierretik bereiztu eta jarri egiten ditugu, (denak kantitate berdina, denon artean erabakitzen bait dugu bakoitzak zenbat).



Plastikako ekinaldiak 2 ordutakoak izaten dira. Lehenengo orduan obserbaketa eta erreflexio ariketarako unea izaten da (hau ez da oso fijoa noski) eta bigarrena erresultado edota espresio lanetarako uzten da. Ordubeteko ekinaldietan ezer gutxi egiteko tartea geratzen da, lanari ekiten eta gauzak jaso eta txukuntzen denbora asko galtzen bait da; hala bada, bi orduko saioaldiak egitea deritzaigu komenigarrien.

Oharrak: Margoaren gaia ez da bostarren mailan bakarrik lantzen, adibide bezala aukeratu badugu ere, margoari buruz, ez dago esan beharrik beste sakonketa eta azterketa mailak ere lantzen direla bai zaharragoekin, baita txikiekin ere; bainan beste neurri batetan (batzutan, eragingarriak antzekoak badira ere).

Eskema honen desarroiloa Margoari lotu badiogu ere, atal bakoitzean azaltzen diren planteiamendu teorikoak, beste haietan eta kurtsotan ere erabiltzen direla esan beharra dago, metodologiaren oinarriak antzekoak edo berdinan izanik beti.

Azkenik kursoaren hasieran, edo metodologia honekin lanean ohitu gabe dauden kursoekin SENSIBILIZAZIO OROKOR bat planteiatzen dugu, gai konkretu edo berezi bat lotu gabe. (Ikus 5 garren basikako programaketaren sarrera).

Idazlan hauetan, Plastikako programeketa baten proposamena azalduko dut kursoz kurso. Programaketa hauk aldaketak izan badituzte ere, eta eguneroko harian sortuak izan badira ere... orientabide gisan eta esperimentazio bidean aztertuak izan daitezela eskatuko nuke, inolako dogmatismorik gabe.

## PLASTIKA BASIKA 5 PROGRAMAKETA

a) **HELBURUAK:** SENSIBILIZAZIOA lortzea ahal den zabaltasun handienarekin. Gure gorputzaren 5 adimenak, eta hau lortzeko espresio bide guztiak erabiltzea: Hotsa, Hitza, Keinua, Marrazkia, Musika, Gorputza....
Plastikak azaltzen dituen zenbait gai berezi, sensibilizazio mail hontatik lantzea eta Plastiko munduan lehenago aztertutako erremienta guztiekin sartzea, gai bakoitza sakonki landuaz esperientzi mailan.
Teknikarekin munduan sarrera bat egin, bainan beti esperientziaren haritik joanda eta beharrak eskatzen duenean.
Kultura Urbana delakoari (lehenengo urratsetan behintzat) lotzea.

b) **PROGRAMAKETA:** SENSIBILIZAZIOA.

- Gorputz espresio eta dominioaren ariketak, talde eta banaka.
- Gorputzaren obserbazioa: Ikumena-Ikusmena-Entzumena.
- Gorputza balore esterno bezala (lehenengo pausoz).
- Musikaren inkorporazioa espresioaren lagungarri bezala.
- Gorputzetik aparteko elemendu erabilkorren azterketa sensitiboa (Lehenengo esperientzi ariketa). Materialen ezagupide sakona.
- Folio zuriaren deskubritze ariketak zabaltasun ikaragarriz.
- Ikusmen probokazioa eta marrazkigintza (Montajeak).
- Ikumen probokazioa eta marrazkigintza (Esperientzi direktoak)
- Entzumen probokazioa eta marrazkigintza (Inbestigazioa)
- Elemento plastiko erabilkorren inbestigazio kolektiboa. Globoa, Plastikoa eta sua, Elastikoak .. medioak erabiliaz (proiektore, magnet foi..)

## 2. URBANISMO (Kultura urbanoa):

- Gauza txikien deskubritzea.
- Obserbazio eta bilaketa gure eguneroko inguruan (ikastola).
- Arkitutako elementuen kolokatzea ikastolako plano kolektiboan, seinalizazio, balore, representazioa, marrazkigintza..
- Etxearen azterketa (bakoitzarena. Plano eta Impresio sensitiboen azalpena planoan.
- Etxetik ikastolarako bidearen azterketa.
- Planoz.
- Normalean ikusten ez diren elementoak sienalizatu, marraztu, obserbatu.
- Maila honetan rekorrido bisualak landu herrian taldeka.



## 3. BATASUN SAKONTASUNA

**FORMA** Soila aztertzea. Kolekzioen montajea. Esperientzi mailan beti. Forma eta eboluzioa. ITZALA, PAPERA.



**MARGOA:** Margo grafikoa. Klasifikaketa eta degradaketa bideak, beti esperientzi eta ikerketa mailan.
MARGOAREN JAIALDIAREN MONTAJEA PRESTATZEA TALDEKA.

**LEKUNEA:** (Espazioa) Giza formaren dominio espaziala (espresio korporala). Itxitasuna. Irekitasuna. Montaje bat (Hariz espazio baten lantzea planoak indikatuaz. Lan kolektiboa eta esperimentala).
Espazioa eta gizona: Utilidadea (Kabina, Tienda campaña, berebila, Etxea historian zehar, Prehistoria..) Artea (Oteiza) Frontoia.. Plaza.. elkarrizketa mailan diapositibaz eta abar.....

**BOLUMENA:** Bisual eta Ikumen esperientziz. Espazioaren ixketa eta balore esternoak, bibentzialak... (espazioaren gaiakin lotua).

**ARGIA:** Argi naturala (Argazkia-eguzkia-urtearoak-egun gaua..)
Argi artifiziala (Paper kolorezko, trasparientzi argi, bidrieroa, zelofan inbestigazioa...)
Reflejoak
Trasparentziak
SUA

## IKUTZEN DIREN GAI OROKORRAK

PLASTIKA ETA IKERKETA
MARRAZKI ARTISTIKOA
MATERIALEN EZAGUPIDEA
MATERIAL PLASTIKOEN POSIBILITATE AZTERKETA

(Mikel Mendizabal)



# KIROLA

## Irakaskuntzan

"Mens sana in corpore sano" horra hor topiko zaharra oraindik orain errealitate bihurtu ez dena. Topiko zahar honek gizonaren kontzepzio oso bat gordetzen du, baina agian, bere garaian errebindikatzen zuena ez da gaur errebindikatzen duena baizik eta, hori gauza bitxia, bere aurkakoa.

Nola nahi ere, grekoek eta aintzinako herri horiek gorputzari emango zioten lehentasuna, bere gizartearen beharrei begira gizon osasuntsu eta indartsuak izango bait ziren gizon perfektoaren eredu borobila. Hala ere, eta hemen dator filosofiaren dehiadarra: ez litzateke gaizki "mens sana" bat edukitzea ere.



Gaur eguneko egoera guztiz diferentea da, indarraren beharra ez bada guztiz desagertu ere, oso gauza "praktiko" gutxitarako balio du, eta geroz eta gutxiago balio izateko bidean dago. Gorputzak balio digu gure entelegua tokiz aldatzeko, baina ez du funtzio oinarrizkorik betetzen. Ez duzue inoiz pentsatu gizon atrofiatu baten itxura hartzen ari garela; 20 km. oinez ibiltzeak "superman" baten hazaña dirudi, orain dela larogei urte (zerbait esategatik) guztiz gauza normala zenean. Zer esan nahi du horrek? Agian kondizionamendu sozialak aldatu direla eta gu ere beraiekin batera, agian bai. Baina, hau ez ote da arriskugarria izango gure gorpuratzeko? Seguru asko, bai. Baina gorputzik gabe bizi ahal izango al gara? Seguru asko, ez. Ez naiz saiatuko esaldi joku honetan, ondorioak zuek atera.

Gure ohiua, grekoen aurkakoa, esaldi berdinaz, izango litzateke: ez litzateke gaizki egongo gure "mens" guztiahaldun horrekin batera "corpore" delakoa ere zaintzea.

Gai hau planteiatzen hasten garenean, beste leku askotan azaltzen zaigun borroka eta kontradikzio berdinak erakusten ditu bere muturrak hemen. Gizartearen eta indibiduoaren arteko borroka edo gehiago esanez behar sozialen eta behar indibidualen artekoa. Dudarik gabe indibiduoari interesatzen zaiona, bere potentzialitate guztien desarroilo gorena da, eta ikuspuntu indibidual hau onartuz, dudarik gabe, iritzi zuzenean dago. Gizona bera, gizarte batetan bizi da eta gizarte hau "izaki" autonomo bat bezala kontsideratzen badugu "ikuspegi sozial" batez hitz egiteko aukera izango du. Gizarteak, modu honetan kontsideraturik behintzat, bere interesak ditu, bere buruaren iraupena aseguratuko dituenak, alegia, eta interes hauk zaintzen ahalenginduko da, normala denez.

Beraz bi desio klase azaltzen dira: indibidualak eta sozialak; eta ez da gauza segurua, beti biak batera etorriko direnik; askotan, bata bestearen aurrean aurkituko dira eta bata ala bestea aukeratu beharra dago, biak batera kontradiktorioak bait dira.

Kirolarekin, horrelako zerbait gertatzen da. Gizonaren interes indibidualaren izenean hitz egiten badugu, arrazoi guztiz zera esango genuke: "gorputzaren potentzialitate guztiak lantzeko eskubide du gizonak eta behar hauk betetzeko bitartekoak eskuratzeko ere". Txiki txikitatik hasita soinaren zaintze berezi bat merezi du, lehenengo fase batetan oso jenerala izango dena: osasunaren eskubidetik hasirik, bere sikomotrizitatearen desarroilo orekatu batetik igaroz, ingurune egoki eta eroso batetaraino iritxiaz. Geroxeago mutila koxkortzen denean aipatutako eskubide horiei jolasteko eskubidea erantsi beharko genioke eta kirol oinarrizko batzuen ezagupen minimoa. Gizontzean, kirol determinatu batzuk praktika ahal izateko aukera, berak aukeratzen duen moduan, eran eta garaian. Zeinek ukatuko luke eskubide horien justizia? Seguru asko inork ez, baina errealitatea ez da hori. Zergatik?

Gizarteari ahotsa emango bagenio, horrelako zerbait esango luke; hauxe da behintzat beste ahotsa batzuetan entzuten duguna; "hori, guzti hori ederki baino hobeto dago, baina, estudiatzea eta ikastea inportanteagoa da, zeren eta biharko babarrunak irabazteko lanpostu bat beharko du mutilak eta jakin ere, denok dakigu zer den beharrezkoa horrelako lanak egin ahal izateko. Seguru asko ez diote galdetuko zenbat segundu behar duen 100m. egiteko, edota nolakoa den bere bihotzaren egoera, ez baldin bada aseguru bat egiteko behintzat. Gaurko gizarte honek buru argiko jendea behar du, oso teknifikatua bait da; gorputz onekoa bada, hobeto, baina ez ditzagun gauzak bere tokitik atera, lehenengoa beti izan bait da lehenengoa eta lehenengoa burua da.





Segun zein tokitan jartzen garen, halakoa izango da defendituko duguna eta halakoa ukatutakoa; baina lehenago jarritako "zergatik" hori erantzuteko nahikoa dugu zera esatea: gizartea eta irakaskuntza antolatzen dutenek ikuspegi sozial hutsez begiratzen diotelako kirolari, eta modu honetan jokatzean kontzesio mailan onartuko dute bakarrik "gaizki ez dauden idei eder horik".

Paper zuri baten aurrean eseritzen garenean joera nabarmen bat izaten dugu, ikuspuntu indibidual hori defenditzea alegia; hemen idatzitakoak ez du agian ezer aldatuko eta idatzi duenari horrelako itxura on bat emango dio. Baina, geroxeago praktikara joaten garenean planteiamendu horik guztiz utopikoak direla onartzeko prest egongo gara, kontra gogorrik egin gabe. Kritika lan batetan gustora idazten dena ez da gogor defendituko bilera batetan.

Adibide argi bat: orain arte idatzi dudan guztiak ez du inor haserratuko, edo ez gehiegi behintzat; baina Ikastolen arteko kirola antolatzeko egiten den bilera batetan printzipio horik lojikoki erabiliz konpetizio tradizionalak ez egitea eskatuko banu, zer? Zuek erantzun.

Baina gaur egun gure Ikastolek "Juegos Nacionales Escolares" delako konpetizioan parte hartzen dute; ez ditut gehiegi defendituko lehenago egiten ziren "Ikastolen arteko konpetizioak", baina halaz ere, zerbait aldatzeko eta hobetzeko genituen posibilitateak galduak dira. Zergatik egin da atze-pauso hau?



Agian orain bai haserratuko da norbait.

Kontradikzio sakon hau ez da bakarrik gertatzen kirola gaia honetan, beste gai askotan ere azaltzen da eta errepikatzen da tono berdinez. Ez dakigu nola gainditu bi interes hauen artean dagoen kontradikzioa eta jokabide batetan ala bestean gordetzen gara; botere soziala dutenek besteen kritika onartzen dute kritika hori materializatzeko arriskurik ez dagoen bitartean, baina ez aurreragorik; kritika egiten dutenek ez dute praktika egin nahi, beraiek kritikatzen duten kontradizkio berdinean eroriko bait lirateke zerbait egitean besteekin batera.

Erdibide bat defenditzeak, logikoena izan arren, erdibide guztien arriskua berdina dauka; oso zabalak izaten direla, alegia eta askotan guztiz inprezisoak ere. Baina, bakar-bakarrik zabaltasun horren barruan bide bat bilatuz gaindi dezakegu itotzen ari zaigun kontradikzio hau.

Bide hori urratu nahiean, ni zerbait proposatzea ausartuko nintzateke: Ikastola bakoitzak bere barruko kirol aktibitateei lehentasuna eman beharko lioke, ondorengo helburuei begira: ahalik eta jende gehiagok parte hartzea.



Ikastolan kirol-giroa zabaltzeko,
eta ondorengo baldintza hauen barruan:
kirol klase asko landuz, konpetitiboak eta besteak,
neska eta mutilei berdin irekiak,
parte hartzeari garrantzia emanaz.
gorputzaren desarroiloaren menpean.

Hitz batetan, gure lehenengo esfortzua Ikastolan bertan eman behar dugu eta ez Eskolen arteko konpetizioetan; Ikastolan dauden guztiei serbitzu hori eskeiniz.

Ondoren etorriko lirateke bai Ikastolen arteko konpetizioak eta bai ere inguruetako Eskolen artekoak, ere. Ahal izanez gero, Ikastola bakoitzak Kirol egun bat antolatu beharko luke bere zalaietan eta bailarako eta inguruetako Ikastola eta Eskolak inbitatu. Kirol-egun honetan kirol klase desberdin askoren saioak antolatuz, bertan programatuz konpetizio tradizionalak futbola, atletismoa, pilota eta abar... alde batetik eta joku eta saio ez konpetitiboak bestetik: sokatira, korrika luzeak, bizikleta jokuak eta abar. Kirol-egun horren zati inportante bat jai giroa izango litzateke, gaur egun konpetizio normaletan bizitzen garen haserre giro hori kendu nahiean.

Utopitan ari ote gara? Indar sozialak ez al dira gureak baino fuerteagoak? eta indar sozial horrek ez al ditu urak konpetizio tradizionalen hibaietara eramango? Agian bai, baina ez al da gure erresponsabilitatean sartzen ur multzo horiek beste hibaietara eramaten saiatzea? Baietz, uste dut.



## KIROLA IKASTOLETAN

Ikastolen planteiamendu pedagogikoa pertsonaren desarroilo osoaz kezkaturik azaldu da beti; eta sentidu honetan oso linea aurrerakoia jarraitu dela esan beharra dago; linea hau dela eta arazo eta inkonpresio ugari aurkitu ditu, normalak diren akatsak aparte utziz, noski.

Baina kirola gaietan, eta honetaz sakontzea interesgarria litzateke, oso atzeraturik aurkitu gara beti.

Lehenengo hurbilketa batetan zera esango nuke nik: kirolak duen alderdi zanpatzaile eta alienantea ez ote da batez ere azpimarkatu zenbait unetan? Zeini ez zaio, kiroletaz hitz egiten denean, burura etortzen futbolaren masifikazio alienantea edota ikastetxe tradizionaletan egin den kirolaren erabilpen zanpatzailea?

Kirolzaletasuna indar negatibo bat bezala ikusi da, benetazko arazo eta problemetatik alde arazi egiten duen indar negatibo bat bezala; eta ez zaio, neurri batetan behintzat, arrazoia faltatu halaxe pentsatzen zuenari.

Irakasleen iritzia horrelako zerbait izan da, eta askotan oso konszientea ez bada izan, nola ukatu susmo hori? Ikuspuntu honetatik oso ulergarria da kirolaren aurrean hartu den jokabidea, edota hobeto esanez zabaldu den inhibizioa; ez da, noski, kirolaren kontra ezer egin, baina alde egin dena oso urria izan da. Ez gara hemen hasiko toki egokien falta aipatzen, guztien ezaguna bait da zein izan den gure egoera eta zein gure erantzuna beste zenbait gaietan desegokitasun berdinaren aurrean; oso jokabide geldikoia erakutsi dugu gai honetan eta komentario gisan esaten dut beste intentziorik gabe.



Halaz ere, kirola hitza aipatzean bi gauza desberdin aipatzen dira:

gorputzaren zaintze eta trebetze orokorra lantzen duena eta irakaskuntzarekin guztiz loturik dagoena;

joku edo deporte berezi eta ezagun batzuk lantzen dituena; konpetizioaren munduan sartzen dena eta pedagogia normalean batzutan sartzen ez dena.

Kirol hitzaren bi aurpegi hauk nahastea oso arriskugarria da, zeren eta baten kontra eduki dezakeguna ezin dugu inolaz ere bestearen kontra erabili. Dudarik ez dago lehenago alderdi hori pertsonaren desarroiloan sartzen dela baieztatzeko eta bere alde egiten den edozer pertsonaren alde egiten dela esateko.

Azken bolada honetan izan diren zenbait kirol saio herrikoiek, denok ikusten ari gara "maraton herrikoien" sukarra, ikuspegi hau zertxobait aldatu dute eta kirola egiteari horrelako balio positiboa eman diote. Gertaera hauk onuragarriak izan dira defenditzen ari garen kirol planteiamendurako eta aprobetxatu eta promozionatu beharko genituzke.

Irakasleen arteko kirol giroa zabaltzea ere oso beharrezkoa da; normala da beste aldetik, batez ere Ikastolak handiak direnean, horretarako irakasle berezi bat izatea; baina, irakasleen artean gai honi buruz gertatzen den giroak asko lagundu dezake jatortasun bat emateko kirolari.



Beste puntu bat ahaztu ezinezkoa, zera dugu: zergatik, behin edade batera helduz gero jendeak uzten du kirola? Konpetizioetan parte hartzeko egokia den edadea bukatu delako eta hori zen kirola egiteko zuten arrazoi bakarra; kirolzaletasuna galdu egiten da zaletasun hori konpetizioetan oinarriturik zegoelako eta beroa sortzen zuen sua itzali egin delako. Gure egin beharra, konpetizioa baztertu gabe, zaletasun iraunkorragoak sortzea litzateke eta helburu hori lortzeko kirolak eman dezakeen satisfazio pertsonalak eta lagun artekoak erakutsi behar ditugu; konpetizio serioek galerazi egiten dute satisfazio hau, zeren eta "a punto" egoteko egin behar diren entrenamenduak gogorrak izaten dira eta askotan mingarriak eta bestetik kontrarioa etsaia bezala hartzen delako gehien batetan.

Kirola bizitza osoaren parte funtseko bat da, gure gorputzaren osasunari begiratzen diona lehen-lehenik; edo hal izan beharko litzateke behintzat. Hori dela eta iruditzen zait oso inportantea irakasleen artean zabaltzen den giroa, ikasleak ikusi beharko bait luke pertsona helduetan ere kirola praktikatzen dela eta ez dela gelditzen gazte garaian egiten den zerbaitetan.



Kirolari buruz jakabide positibo eta aktiboa erakutsi behar dute Ikastolek; ezinezkoa zaigunez erro-errotik antolaturik dagoen kirolaren egitura konpetitiboa ezereztatzea, gure jokabideak bide alternatibak proposatzea izan beharko luke; askatasun osoan utziz konpetizio eta ekipo horietan parte hartu nahi duen ikaslea, baina parte hartu gabe zuzenean Ikastolaren izenean, oso kasu bereziak salbu. Ikastolak bere barneko aktibitateei eman beharko lioke lehentasuna nere iritzian, saio eta aktibitate ugari eta irekiak antolatuz, era honetan "ona" ez delako kirola inoiz egingo ez lukeen horri serbitzio bat eskeiniz. Bigarren fase batetan etorriko litzateke besteekiko harremanak, beharrezkoak baina ezin dutenak besteek duten inportantzia gutxitu, ate gutxiago ezereztatu. Dena dela Eskolen arteko saio horietan pertsonen arteko erlazioak bereziki zaindu beharko lirateke eta alderdi honetatik zerbait pentsatu.

Egongo da, dudarik gabe, hau guzti hau oso utopiko dela esango duena: baina beste sailetan bide berriak urratzen saiatu ba gara, zergatik ez saiatu bide honetan? Urratsean bide berriak urratu nahi ditugula esatea normala da beste aldetik.

**J. M. Goñi**

# IPAR EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK

## IKASTOLEN HAZKUNDEA: 1969 tik ORAIN ARTE.

Ipar Euskal-Herriko lehen ikastola 1969 an Bałonan irekia izan zen. Orduko abertzele gehienek, hego aldeko ikastolen berri gehiegi ez jakiteagatik, ez zuten ikusten nola, euskaraz bakarrik, egiten ahal zen eskola, gastu guztiak edo guztiz gehienak gurasoen gain direlarik.

Herri-iritziak (opinione publikoak), ikastola ezin ulertuz ba du oraino ere aski lan. Bistan da, duela hamar bat urte, ikastola buruxoro edo burubero batzuen egintza bezala hartu zela. Gaurko egunean herri - iritzi horrek, guti edo aski, ikastolak ba direla ba daki, baina ikastoletaz duen ezagutza, ez doa urrunago (urrutiago).

Laster ordea, abertzale guztiek argi eta garbi ikusi zuten, euskara eta euskal kultura, ipar aldean ere, berriz indartzekotz, ikastola baharrezkoa eta baitezpadakoa (derrigorrezkoa) zela...

Eta gizartesail horren oinarriaz baliatuz, emeki emeki eta urtetik urtera, ipar aldeko ikastolak ere emendatuko (gehituko) dira.

Huna nun noiz ireki diren:

| | | |
|---|---|---|
| 1969 an: | bat, | Baionan. |
| 1970 ean: | bi, | Baionan bat eta Donibane Lohitzunen beste bat. |
| 1971 an: | lau, | Senperen, Hendaian, Ziburun eta Donapaulen. |
| 1972 an: | bost, | Azkaine, Uztaritze, Maule, Hazparne eta Donibane Garazi. |
| 1973 an: | bat | Ezpeleten eta bi gela berri Donapaulen eta Baionan. |
| 1974 an: | lau, | bat Biarritzen, bi Baionan eta beste gela bat Donibane Lohitzunen. |
| 1975 ean: | bi, | lehen mailako ikastolak biak: bata Donibane Lohitzunen eta bestea Angelun. |
| 1976 an: | bat, | Ezpelete hetsi eta Kanbon ireki. |
| 1977 an: | bi, | Donapaulen lehen maila eta Saran ama-ikastola. |
| 1978 an: | bi, | Mugerren eta Atarratzen. |

Ikastola guzti hauen kurrida edo martxa, SEASKA batasunak (elkargoak) aurrintzen (koordinatzen) du. Geroago ikusiko dugu SEASKA elkartasunak nola kurritzen duen egun.

Gaurko egunean, ipar alde hunetan ditugun hogeita bi ikastola horietan larehun bat haur ba dabila, bi urtetik hameka urte artekoak. Hirurehun eta hamairu familietarik heldu diren haurrak. Mundu ttipi horren eskolatzeko ba ditugu hogeita hamalau irakasle. Horietaz bestalde, ba dira bost erakaslegai eta hiru idazkari SEASKA batasunaren gain direnak.


BAIONA
Arrangoitze
ANGELU
BIARRITZE
Mugerre
Uztaritze
D.Lohitzune
Hendaia
Azkaine
Hazparne
Senpere
Kanbo
Donapaule
Sara
Pave
DONOSTIA
Maule
D.Garazi
Atarratze
(muga ken)
IRUÑA


HAURRAK
400
300
200
100
14
47
101
175
225
305
334
371
368
390
URTEAK
1969 70 71 72 73 74 75 76 77 78
1970 71 72 73 74 75 76 77 78 79

## LEHEN MAILATIK BIGARREN MAILARI BURUZ

Duela lau urte zen beraz lehen mailako lehen ikastola, ipar aldean. Lehen mailako ikastolak sei urtetik hamaika urte arte eskolatzen ditu haurrak. Orduan, lehen mailan sartu ziren haurrek aurten bururatzen dute beren aldia. Heldu den urtean, joanen dira frantses eskola edo bigarren mailako ikastolara, baldin hau irekitzen badu SEASKA-k.

Aurtengo biltzarre nagusian, batzorde berezi bat muntatu da bigarren mailako ikastolaren irekitzea ahal bezain barnaki (sakonki) ikertzeko.

Dudarik ez da, ikastolan hasi den erakaskuntza motak jarraipen edo segida bat behar duela, ama eskolatik lehen mailara bezala, lehen mailatik bigarren mailara. Eta geroago, bigarren mailatik goiti aldian aldik beste maila guztietara.

Erran gabe doa ordea, horrelako erabaki bat, nahiz eta eskubidezkoa izan, ez dela airera edo nolanahi, aitzinetik edo aurretik gogoetak egin gabe hartzen. Zeren, bigarren mailaren irekitzeak, nahi eta ez, oraingoz diru aldetik ditugun buruhausteak oraindik haundiagotuko baitizkigu.

## FRANTSES ESTADUAREKIN HITZARMEN BAT FINKATU?

Ez da segur mundu haundia ipar aldeko ikastolen inguruan dabilana. Baina, ikastola horiek oro, ahal bezain ongi itzulikarazteko bildu behar dugun dirualdea, urtetik urtera harrigarriki goiti ari da. Eta ba dirudi (iduri du) aurtengo budjetarekin (bi miliun edo milioi liberaz goitikoa izanen baita) muga batetara helduko edo iritxiko garela. Dena den, aurtengo eskola urteak agertuko digu, ikastolako guraso, irakasle eta laguntzaileak, ahaldun (kapable) diren ala ez, dirualde horren eta gehiagoren biltzeko.

Sail hunetan ere, hain segur, bide berri bati buruz beharko du SEASKA-k abiatu. Frantses estaduarekin hitzarmen, tratu edo konbenio baten finkatzea, geroari begira, beharrezkoa gertatuko zaio, baldin nahi badugu gure ikastolen hazkundea ipar euskal herri guztietara zabaldu.

Eskubidez estaduak behar dizkigu gure ikastolak ordaindu, frantses eskolen izari edo neurri berdinean.

Ez dezakegu oraino xuxen asma zer bide hartuko dugun gure ikastolen abantailetan. Dena den, aurtengo biltzar nagusiak onetsi du estaduarekilako hitzarmen horri buruz, batzorde berezi batek lan egin dezan.

## GERO UKANEN DUGUIA HAURRIK IKASTOLETAN!...

Ipar Euskal-Herrian, guti gora behera, berrehun eta hogeita hamar milako bat egoiliar (bizitanle) ba da, gaurko egunean. Jendalde horretatik hamar milako bat ba dabila frantses ama eskoletan eta beste hogei milako bat lehen mailako frantses eskoletan. Gure ikastoletan aldiz larehun bat baizik ez. Heldu baita ipar alde honek dituen ehun haurrentzat hiru baizik ez. %3 baizik ez! Arras guti da, jadanik eskoletan dabiltzan haurrei konparatuz.

Baina, ipar aldeko beste errealitate hau ere gogoan eduki behar dugu, eta da: gero eta haur sortze gutiago dela ipar aldeko herrialdeetan. Eta hori, parte arrazoin xinple honengatik, azken urte hautan ipar aldea hanitz hustu delako, bereziki mendialdea. Itsasaldeko jendaldea gehitu baldin bada, gehiago egin da kanpotik sartu zaion jende arrotz erretretatuaz (jubilatuaz) mendialdetik etorri zaion jende gazteaz baino.

Demografiaren errealitate dorpe hori gogoan edukiz gero, dudarik ez da, gure ikastolen geroa, demografiaren gain ere dela.

## IKASTOLETAKO DIRUA NONDIK DATORREN...

Aurtengo eskola urtea diru aldetik inguratzeko, bi milioi liberaz (frankoz) goiti beharko ditugu nola hala bildu. Dirualde horretatik %20 en galdea egina izan zaie departamenduko kontseilu jeneralari eta ipar aldeko euskal herriko etxeek. Joan den urteko dirualdetik %12 eman ziguten dirulaguntza bezala. Aurten zerbait gehiago emanen dute, agian, baina gisa guziz %20 eko horretara ez dira helduko (iritxiko).

Gurasoek, joan den urteko dirualdetik %25 eman zuten. Ikastolen abantailetan muntatzen diren besta (jai) eta egiten diren edonolako saltzapenetarik %25 bildu zen. Ikastolen laguntzaileek %10. Gelditzen den %20/25 eko hori, gisa batera edo bestera bildu behar izaten da, urteko konduen inguratzeko. Erran dezagun aurten, indar berezi bat eginen izanen dela gurasoen aldetik, eta hego aldetik ere laguntza bereziak izango ditugula.

## - IKASTOLETAN ERABILTZEN DUGUN HEZKUNDE EDO PEDAGOGIA -

Euskara da beraz ikastolaren mintzaira edo hizkuntza ama-ikastolan eta hizkuntza nagusia lehen mailako ikastolan (sei urtetik goiti).

Gaurko egunean, munduko eskola aitzinatuenetan erabiltzen diren ikasbide edo metodoen arabera moldatzen dugu gure ikastoletan baliatzen dugun erakaskuntza, urtero guraso eta erakasleen artean, guti edo aski, berritzen duguna.

Hezkunde edo pedagogia hori hiru sail premiatsutan zatitzen edo banatzen da.

ikasbide bizia edo eragilea, erran nahi baita, haurrak ezagutzen, pentsatzen eta egiten duenetik abiatzen dela erakaslea, honek berak dakiena gai arau sakatzeko edo irestera emateko orde.

ikasbide osoa edo orokorra, erran nahi baita, ikasgaiak ez direla gai arau zatituak, hala nola: irakurtzea, idaztea edo izkiriatzea, matematika, hizkuntza, gramatika, aditza edo "verboa" eta beste. Baina, gai berezi eta oso batzuen bitartez, erakasten dira gai bereziak oro.

ikasbide naturala, erran nahi baita, haurraren inguruaz, haren nahikarietaz, haurrak dakienaz eta duen ikas-ahalaz (eta ez bakarrik haren adinaz) kondu atxikiz erakasten dela.

Horrelako ikasbide bizi, oso eta natural batek, bistan da, galdatzen du, erakasle bakoitzak edo bakotxak haur bakoitza hurbildik ezagut dezan. Eta hortakoz, ez du haur gehiegi ukan behar bere gelan. Horra zergatik gure ikastoletan ez ditugun 25 haur baino gehiago onartzen gela bakoitzean.

Ikasbide bizi, oso eta natural horren bitartez lortu edo eskuratu nahi ditugun helburu nagusiak, bi dira: alde batetik, haur bakoitzak haz eta azkar dezan bere nortasuna berezia, eta bestetik, bere nortasuna haziz bezala, ikas dezan bere lagunekin bizitzen, lan egiten, jostatzen edo jolasten etabar.

Bi helburu nagusi horietara heltzeko, gure ikastoletan leku premiatsu bat ematen diogu, alde batetik gorputzari: haurren adimendua irekiko da, zabalduko da eta zorroztuko da, haurrak bere burua ongi senditzen badu bere gorputzean. Hortaratzeko, bere gorputza ezagutaratzen zaio haurrari, erakusten zaio ere bere gorputzarekin nola joka, bere gogoa gorputzaren motor bezala erabiltzen, horrela, adimenduarekin batera bere gorputza ere osoki har dezan. Bestaldetik berriz, leku haundi bat ematen zaio eskulanari, eskulan artistikoari, eskulanaren bidez haurrak bere nortasuna agertzen eta moldatzen baitu, eta eskulanaren bitartez haren adimendua beste hanitz gauzari ohartzen baita.

Erran behar duguna oraino, lehen mailara sartzean, sei urtetik goiti beraz, gure ikastoletan frantsesezko erakaskuntza sartzen dela, urtetik urtera gehiagotuz. Erakasleak frantsesez baizik ez du hitzegiten haurrekin, eta lehenik euskaraz ikasi gaiak, gero frantsesez erabiltzen ditu. Horrela, lehen urtean, astean egun erdi bat, bigarren urtean egun bat osoa astean eta hirugarren urtetik goiti egun bat eta erdi baliatzen dira frantsesezko erakaskuntza egiteko.

## IKASTOLETAKO ERAKASLEEN MOLDAKUNTZA GELDIGABEA

Ikastoletan ditugun erakasle guziek baxia deitu diploma ba dute edo gutienez diploma horren heina. Erakaslegai bakoitzak urte bateko ikasaldia egiten du beste erakasle batekin. Urteko ikasaldia bukatzean edo bururatzean, Seaskako hezkunde edo pedagogiako taldeak kontrolatzen du haren lana eta erakaslegaia erakasle bezala onartzen edo ez onartzen.

Erakaslegaia erakasle bezala onartua delarik, ikastola bat ematen zaio ondoko urtean eta ikastola hartako gurasoek moldatu pedagogia taldearekin lan egiten du urte guzia eta horrela aitamekin kurutzatuz lan hobea egiten du haur bakoitzarekin.

Bestalde, beste erakasle guziekin batera, moldakuntza geldigabea jarraikiko du. Huna nola programatua duten gero erakasleak aurtengo lana: Omia Sainduz: anatomia, Beltzarekin. Eguberriz: talde dinamika, Gilen Zaldunbiderekin. Otsailean 3 egun eta bazkoz beste hiru egun: soziologia, Bachock-ekin. Eta udako bakantzetan, erakasleak berak hautatzen duen ikastaldia. Horietaz bestalde, hamabostero goiz batez psikologia eta arratsaldean psikomotrizitatea, eta hilabetean behin ikasbide berezi bat, hala nola Freinet, Decroly, Montessory eta beste, behar dituzte ikertu.

Eta bururatzeko erran behar dugu, frantses akademiako inspekturak ere bere kontrola egiten duela.

## GURE IKASTOLAK ETA GOBERNUKO ERAKASLE IBILTARIAK

Zenbait urte huntan frantses eskoletan ba dabiltza gobernuak ordaintzen edo pagatzen dituen erakasle ibiltariak, eskolaz eskola. Ba dakigu beren ofizioaren betetzeko dituzten baldintzak edo kondizioneak ez direla onak. Ez dugu hemen haien borondate ona hauzian sartu nahi.

Bakarrik erran nahi duguna da: gobernuak ez duela serioski beregain hartzen euskarazko erakaskuntza eta erakasle ibiltarieri ematen dien bidea biziki txarra dela.

Zeren alde batetik, erakasle horiek ez ditu aitzinetik behar bezala moldatzen, eta bestetik, astean bizpahiru oren emanez bakarrik euskarari, haurrez ez baitute deus funtsezkorik ikasteko biderik. Eskuara pixka bat ikasiko dukete, baita ez dute inola ere euskaraz ikasiko. Eta hori ez erakasle ibiltariengatik, baina gobernuak hauei ematen duen erakasbidea gain gainetik mugatua delako.

Gure herri hizkuntzak ez dezake beraz bide horretatik salbabiderik izan.

## BI IGANDE OSO IRAUN DUEN BILTZAR NAGUSIA

Aurtengo biltzar nagusiak bi igande oso osoa iraun du. Lehen igande goizean berean, biltzarkideek (ba ziren orotara ehun eta hogeitamar bat) berehala ikusi zuten aipatu behar ziren gaiak ez zitezkeela egun batez behar bezain barnetik iker. Bi egun oso behar izan dira beraz horretarako. Dezagun erran, bigabilduak. Bi biltzar aldi horietan bildu den jendeak erakusten digu, ikastolak ez direla bide erditan gelditzeko abiatuak!

Ez gara hemen xehetasunetan edo zehaztasunetan sartuko. Bakar bakarrik erran nahi duguna da, aurten, ipar aldean ditugun 22 ikastoletaz arduratzen den Seaska batasunak berritzapen on bat hartu duela, biltzarkideek hala erabakirik edo deliberaturik.

Berritzapena, alde batetik, bigarren igandean berean moldatu baitira urte guztian lanean ariko diren multzo, talde edo batzordeak. Aurtengotz, sei laneko multzo osatu dira: diruzainen taldea, berriemaileena, hezkunde edo pedagogiarena, udalekuarena, ikastolaren hazkundearena edo hedatzearena eta langilegoaren kudeantzarena.

Berritzapena bestaldetik, zuzendaritza osoa berritu baita eta nonbrez kasik doblatu. Ohi bezala, biltzarrak hamabi guraso hautatu ditu eta erakasleek beren artean beste bost ordezkari hautatu dituzte. Hamazazpi presuna edo pertsona horiek ordezkatzen ez dituzten ikastolek beren aldetik (orotara hamairuk) ordezkari edo ordari bana bidali dute Seaskako Zuzendaritzara. Bestalde, zuzendaritzan diren guztiek laneko talde batetan lan eginen dute.

Horrela, egitura edo estruktura berri horri esker, ba dugu mentura Seaska batasunak, eta honekin batera, ikastolek, sekulan baino kar haundiagorekin aitzina eramanen dutela hasi saila.

## GURE IKASTOLA ZER DEN

Gure ikastoletan erabiltzen dugun erakaskuntza edo erakasteko moldea nolakoa den aditzera eman aitzin, nahi genuke ikastola zer den bi lerroz agertu.

Ikastola ez da norbaiten eskola, ez alderdi batena, ez mugimendu batena, ez gizartesail edo klase batena, ez eta eliza batena.

Ikastola euskaldun jendearen herriko eskola edo eskola publikoa da. Ikastolako erakaskuntza, aitamen eta erakasleen artean moldatua da. Ikastolako hizkuntza euskara da eta frantsesezko erakaskuntza mailka sar-arazten da lehen mailatik goiti.

## IKASTOLAK EUSKAL HERRI GUZTIETAN

Gure ikastola herriko eskola edo euskaldunen eskola publikoa denez geroz, normalki ikastolak herri guztitan ikusi behar genituzke. Baina, errealitatea besterik da. Zertarik datorren hori?

Gure ustez, bederen, kausu berezi hauengatik dira ikastolak hoin emeki emendatzen, hazten ari. Euskaldun jendeak uste baitu haurrak ikastolara igorriz edo bidaliz, gero ez duela bere bizia egiten ahalko, eskola frantses batetara doan haurrak bezain aise. Uste baitu ere, jende horrek, lehenik euskara ongi ikasi eta, gero beharbada aitamek berek ikasi duten bezain nekez ikasiko duela haurrak beharrezkoa dugun frantsesa.

Jende horrek behar luke ohartu edo konturatu, nola luzaz frantsesek eta frantsestu euskaldunek sinetsarazi diguten, euskaraz mintzatu edo hitzeginez, frantsesa gaizki ikasiko genuela, eta frantsesa ez bagenuen ongi ikasten, jende gaizo batzu izanen ginela. Ondorioz, mintzaira edo hizkuntza bakar baten erabiltzera bahartu gaituzte, eskolan bezala beste edozein lekutan, gure gogo zaurituaren goxatzeko erranez gainera, frantsesa zela bakarrik kultur hizkuntza, munduko landuena eta ederrena! Egun hogeita hamar, berrogei edo gehiago urte duten aitamak, atzo bezain berri balitz bezala, oroituko dira nola gaztigatuak izanak diren, eskolan frantsesez mintzatzen zirelarik, eta halaber zenbat trufatuak beste hanitz lekutan, frantsesa aski ongi ez zekitelakotz! Horrelako nortasun mendratze eta zapaltzeak ez dira ahanzten!

Horra, zergatik, hanitz euskaldun guraso ez den menturatzen bere haurraren edo haurren ikastolan ezartzera. Alta, herri eskola guzietan gauza jakina da egun, eta beste hanitz herri edo erresumatan baliatua: aitamen edo gurasoen mintzaira ongi finkatua edo oinarritua dutelarik beren baitan, haurrek beste mintzaira bat errezki ikasten dutela, eta biak berdin trebeki erabiltzen.

## IKASTOLA POLITIKA DA?

Bestalde, hanitz euskaldunentzat, gure ikastola politikan sartzea omen da. Halabaina horientzat, euskal hizkuntzaz eta kulturaz arduratzea edo okupatzea, politika egitea da. Horrela pentsatzen dutenek behar lukete, ongi gogoetatu ondoan, ikusi, beren bizian egiten duten hautu bakoitzean politikabide berezi bat hartzen dutela. Ikusiko dute orduan, beren haurra edo haurrak frantses eskola publikoan edo frantses eskola pribatuan ematen dituztelarik, politikabide bat hautatzen dutela. Berek ere politika bat egiten dutela! Haiek eta guk berdin arrazoinatzen badugu, ikastolan haurra ematea eta frantses eskola publikoan edo pribatuan ematea, bi egiteak berdin politikoak dira. Politika baldin bada euskaraz erakastea Euskal-Herrian, nolaz ez da bada politika frantsesez erakastea Euskal-Herrian? Haiek eta guk politika egiten dugu!

Kausu guzti horiek agertzera ematen dute, euskaldun jende gehienak ez duela kontzientziarik bere herri hizkuntza eta kultura betikotz galtzetik salbatu behar dituela eta hazi.

Ba da beste kausu bat ere, erdi dudan dagoen jendea hunkitzen duena, hau. Eta da, beren haurra ikastolan emanez, frantses eskolan emanez baino gaiago beharko dutela bere haurraren eskolatzeaz arduratu. Bai hezkunde aldetik, bai diru biltzearen aldetik, bai haurren biltzearen aldetik, bai eta oraino ikastolak berekin dakarzkeen beste hanitz egitekoren aldetik. Eta pedagogiaz edo hezkundeaz arduratzeaz aparte, beste guztia, egin behar izanen du, gobernuak ez dituelakoz euskarazko eskolak diru aldetik beregain hartzen! Frantses eskolak hartzen dituen bezala!

Ipar alde hunetan, euskal hizkuntzak eta kulturak bere pizkundearen kontra, herritar gehienen baitan oraino aurkitzen dituen traba edo laguntzarik eza guztiengatik, ba dugu mentura haundia, gure herrietako jendea, urtetik urtera, ohartuz joanen dela, baldin nahi badio bere herri hizkuntza eta kulturari bizipide sano eta iraunkor bat eman, ikastolak beharrezkoak dituela. Eta ipar aldeko jendeak kontzientzia hori bereganatuz bezala, herri guztietara zabalduko dira gure ikastolak!

Guraso eta erakasle multzo bat.

# HAURRA, EGILEAREN AURPEGI ERRAINURIK BETEENA

Zer esperientzia dudan erlijioko klaseena galdegin didate. Konta dezadala zer nola ibiltzen naizen klase hoietan eta zer den erlijioko klase bat. Has nadin, eta ea gauzak nik uste bezala adieratzen ditudan. Uste hoiek okerrak diren ala zuzenak, bestek esango du.

Ikasleek badakite lehen egunetik, nere klasetan ez dutela aditzeko obligaziorik. Erlijio askatasunik izan ez dugun herri hontan, askatasun giro bat sortzen ahalegindu naiz lehen lehenik. Aldi berean, bakoitzak nahi duen hura egin dezake klase hoietan: irakurri, idatzi, etxeko lanak egin,...

Bainan ez du guztia zilegi. Debekatua dauka klaseko elkarrizketaz kanpo hitzegitea. Ez dezake galerazi nik klasean ari dudan elkarrizketa. Norbaitek gutxi eskatzen diodala uste badu ikasleari, betor klasera eta ikusiko du zenbaitek hausten duen arau hau eta zenbat aldiz esan behar dudan, denentzat ari denak bakarrik duela hitzegiteko eskubidea eta ez bestek.

Notak ere neurri hoien araberan izaten dira. Badakite lehen egunetik inork ez duela suspendituko; eta gainera nota ona izango duela. Notarik hoberenak zerbait egiten dutenek bakarrik izten dituzte; baina onak, denek. Haatik notak oso onak izaten dira erlijioan. Irakasle legunek ez dute gutxi par egiten.

Giro hortan egiten dugu lan erlijioko klasetan.

Horiek horrela, nork ez asma ikasleak deseatzen egoten direla erlijioko irakaslea klasera joateko? Hargatik esaten dute hainbat alditan "irakaslerik onena zu zara"; baina erlijioko irakasleak ez dezake hori sinets, burutik joana ez badago behintzat. Beraz gure ikasleak erlijioko klasearen "alde" daude amorratzen. Noizpait beste klaseren batengatik, ala azterketa egin dezaten edo, klase hori kendu bada, injustizi haundi bat egin dela uste izaten dute. Horrelako borondatez hartzen duten ikasleengana nola ez joan pozik irakaslea? Baita astelehen goizetan ere.

Baina orain arteko hori ez da, errezena egitea besterik. Horrekin bakarrik ez dugu gauza haundirik egin. Edo bai? Neri zerbait baino gehiago dela iruditzen zait oraindainoko hori ere, baina ez da guztia. Eta hortik aurrera egin behar denak ematen dun lan, eta kezka.

Hortik aurrerakoa nola egiten dugun esango dut lehenik, nola horrek erakutsiko bait du ondoen zer egiten dugun.

Lehen esan dut, elkarrizketa egiten dugula klasean. Dena dela erabiltzen dugun gaia, beti elkarrizketaz tratatzen dugu. Eta elkarrizketa hortarako bidea, ikasleek jartzen dute. Berek izendatzen dituzte aldi bakoitzean gaiak. Gai aukera kursoaren aurrenean egiten da lehenik. Hoiek dira gai "nagusiak" kursorako; baina ez bakarrak.

Ebaluazio bakoitzean egiten duten redakzioak gai asko eman ohi du. Nahizta lehendik erabilitako gai batetaz izan, bakoitzak askatasun osoz erabiltzen du, eta klasean atera diren baino galdera nahiz puntu gehiago eta sakonagoak ateratzen dira askotan. Hoietatik deigarrienak jaso egiten ditu irakasleak eta gero klase osoaren aurrean tratatzen dira. Gehienetan ez da jakiten zeinek eman duen puntu hori. Hori dela-ta, kursoaren haseran hartako bidea ahaztu egiten da askotan. Baina ez da hori bakarrik irailean markatutako bidetik bazterrerazten gaituena.

Klase bakoitza hasterakoan nahi duenari hitza emanez hasten da beti irakaslea eta askotan gertatzen da, norbaitek galdera bat egitea eta harek ematea klaserako gaia. Ez beza inork pentsa galdera nahiz ateraldi nahiz nolanahiko arrazoi hori beti egia batetaz edo denik. Protesta bat ere berdin izan daiteke. Baina beti ere zera da: Haurraren buruaren puntan dagoen zerbait. Eta atera egiten da. Eta tratatu egin behar da. Haurrak sentimenduak eta ideiak eta emozioak, denak batera ibiltzen ditu. Eta irakasleak badaki, esaten duen hura sentitu egiten duela nolabait. Haren bizian itsatsia dagoela; eta minezko bada, pozezko bada, ateratzen ez bada, ez dagoela ondo haurraren baitan, beste edozer gauza galeratzen diolako. Beraz atera egin behar duela, eta atera bada, tratatu ere egin behar dela, haurrarena delako, zerbait bizia, eta bizi guztia hala baita, zerbait inportantea.

Ikus dezake horrenbestez irakurleak, zer eta nola puskatzen den, inoiz hartua izan den lana eta uzten den hasi den bidea. Giro hortan iraupenezko lan bat egiteak baditu bere gorabeherak. Ez da beti errez matazari haria bilatzen eta zerbait ateratzen. Haurra bera bezain igikorra gertatzen da klasea eta pertsona heldu batentzat lan gaiztoa da.

Gainera, zorionez, haurrak jostalari dira eta beti hartarako daude. Irakasle gizarajoa berriz ez dago beti jolaserako. Pertsona larriak beren baitan josiak daramazki bere buruhausteak, tristurak, eta abar, eta ez ditu haurrak bezain errez astintzen. Haatik asko kostatzen da gure negua ikasleen udaberriarekin konpontzen, elkartzen, sintonian jartzen. Norberaren deuseztàpen haundia eskatzen du haurrarekiko sintoniak. Ez da, ez, jolasa hezketa lana.

Horrenbestez ikusia dukezu, irakurle, zer nolatsu ibiltzen garen erlijioko klasetan eta zertsu den hoietako giroa. Galdetzen badidazu konforme ahal nagoen eginarekin, ezetz erantzungo dizut, egin daitekeena askoz gehiago baita egiten duguna baino. Hargatik konforme ez nago.

Hala ere lan hortan segitzeko prets bai, banago. Ez nuke munduan izan nahiko haurrekiko sintonia galdurik. Haurra da, nere ustez, biziaren espresiorik ederrena, eta beraz, Egilearen aurpegi errainurik beteena. Haurra gizarteak ereiten duen hazia, nahiz txarra eta nahiz ona, hobekien hartzen duena. Gizartearen ispilu da, eta gizartean zer ukatu eta zer aitortu jakiteko, ez dago haurra bezelako eskolarik.

Are gehiago. Ebanjelioa bera ere askoz ederkiago ulertzen da haurra ezagutuz. Hargatik, haiek ez dakit zenbat ikasia duketen nigandik, baina nik haiengandik asko ikasi dudala egia da. Zor haundia diet nik ikasleei. Hoiek ezagutu izan ez banitu, ez nuen izango daukadan hainbat fede gizonarengan, eta Jainkoarengan.

Alditan segi nezake hainbat eta hainbat gauza esaten, baina bukatzera noa. Eta bukatzeko, nere deseo bat ekarri nahi dut honera: Gure gizarteak izan dezala haurrek duten hainbat zuzentasuna.

Joxe Mari Aranalde

# UDAKO PEDAGOGI IKASTALDIAK

Cataluñatik, zenbait "udako kursilloen" berri etorri zaigu. Gure irakurleei interesatuko zaielakoan gaudenez gero, hemen ematen dugu, zerrenda horren berri:

Uztailaren 2-13 egunetan, "Universidad Autónoma de Bellaterra" (Bartzelonan), Escola d'Estiu de la Generalitat delakoak eta Rosa Sensatek eratuak, Guarderia, Eskolaurre eta EGB koentzat kursillo batzuk eratu dituzte. Kataluña eta Balearesko Doktore eta Lizentziatuek eratua, BUP eta COU ematen duten irakasleentzat. Eta "Agrupación de Enseñantes de Formación Profesional" delakoak eratua, F.P. Formazio Profesionaletako irakasleentzat.

Orokorrean erabiliko den hizkuntza "katalana" izango da eta titulua eskatuko da.

Etorri nahi dutenek, bidali behar dute: Izena zuzenbidearekin, maixu titulua eta lantokiko agiri zertifikatua.

Matrikula Ekainaren 5-8 tartean egingo da.

Zehaztasun gehiago jakin nahi duenak horra zuzenbidea, telefono eta guzti:

Matricula Escola d'Estiu/Rosa Sensat/Córcega, 271 pral.
Barcelona-8 tel. 2280003

## HORRA CATALUNYAKO BESTE ZENBAIT KURSILLOEN BERRI

| Lloc (Lekua) | Dates | Informació |
|---|---|---|
| Tarragona | 2-13 de juliel | Carme Andrade. tel. 977381292 (part) |
| La Garrotxa | 27-31 d'agost | Anna Juarez tel. 972262297 (part) |
| Girona | 27 d'agost - 7 setembre | ICE (Ramón Marqués) tel. 972213300 |
| Figueras | 27 d'agost - 7 setembre | |
| El Bages | 27 d'agost - 7 setembre | Antoni Revilla tel. 8760869 (escola) |
| Osona | 27 d'agost - 7 setembre | Escola Normal tel. 8891338 |
| Lleida | 2-13 de juliol | ICE (Josepa Reimundi) tel. 973246893 |
| Sabadell | 23 de setembre 5 d'octubre | Assumpta Sanchez tel. 7255899 (tardes) |
| Penedes | 2-9 de setembre | Camil Fortuny. Sant Quintí de Mediona. |

## BESTE KURSILLOAK

| Lloc (Lekua) | Dates | Informació |
|---|---|---|
| Sevilla | Uztailleko 1. astea | |
| Valencia | Uztailleko 1. astea | Inf. Rosa Serrano - Escola La Gavira. tel. 2472435 |
| Madrid | Uztailleko 1. astea | Acción Educativa. c/Príncipe 35, 2-dcha. |

## MUSIKARI BURUZ KURSILLOAK

Gipuzkoako Diputazio Foraleko "Junta de Cooperación" delakoak eratua eta "R.S.V.A.P. ren zuzendaritzapean, haurren Kursillo pedagogiko musikala eratzen da.

Non: Loyolan Noiz: 1. eta 2. maila abuztuaren 20 tik irailaren 1 era.
3. maila abuztuaren 20-28 artean, astegunetan.
Matrikula 1.500 pezta.
Loyolan monjaetxe batean ostatua izango da (Residencia de las Esclavas de Cristo Rey) Ostatu osoaren prezioa 450, pezta. eguneko. Erdiarena 300, pezta.

## EUSKAL DIDAKTIKAZKO IKASTALDIA

Euskal Kontseilu Nagusiak ICE delakoarekin batera antolatzen du kursillo hau. Kursillo hontan bi alor aztertuko dira. Bata: Psikolinguistika eta bestea, Glotodidaktika. Bi lekutan emango da: Donostian eta Bilbon.

Irakasleak zerak dira: Karmele Atutxa, Xabier Mendiguren, Lontxo Oihartzabal, Jon Aurre, Barxott eta abar....

Kursillo bakoitzak bi atal izango ditu: bata teorikoa eta beste praktikoa.

Euskararen didaktikazko ikastaldia, Eskolaurrean eta O.H.O. ko lehen bi urtetan lanean dabiltzan irakasleentzako zuzendua dago.
Euskararen D. Tituloa eskatzen da.

Kurtsilloaren iraupena 30 ordukoa da. Teoriko alderdia kurtso honen zehar landuko da eta udan alderdi praktikoa.

Programak ez ditugu zehazten, luzeegi ez egitearren.

## IRAKASLE ELKARTEA

Berriro ere ikastaro baten amaieraren aurrean aurkitzen gara, eta berriro ere udako ikastaldiak egin beharrean, edo nahian edo...

Ez da samurra izan guretzat irakasleok eskatutako gai guztien artean aukera bat egitea.

Posibilitatea arabera jokatu behar izan dugu. Bukaeran denok eman beharko dugu gure eritzia ikastaldietaz, eta denon artean erabaki hemen egin dugun lana baliagarri izan den ala ez. Hala izan dadila.

IKASTALDIAK

1. **Musika eta Sikomotrizitatea (Eskolaurrea)**
   *Uztailaren 2tik 7ra.*
   Lutxi Manzisidor, Imanol Urbieta eta Mentxu Alkorta izango dira irakasle.
   Ikastaldi hau praktiko izango da batez ere. Irakasleek arropa lasaia ekartzeko eskatzen dute, baita ere eta ahal izanez gero Xirula-Mirula liburua, eta xirula edo beste tresnaren bat.
   25 laguneko taldea egingo da.

2. **Musika ESKOLAN (Lehen maila)**
   *Uztailaren 9tik 14ra.*
   Lutxi Manzisidor eta Imanol Urbietak emango dute.
   Hau ere Xirula-Mirula metodoaren eta Musikaren ikastaldi oso praktikoa izango da.
   Ikastaldi honetarako Xirula-Mirula liburua eta musika tresnaren bat beharrezko dira.
   Musika dakitenek eta ez dakitenek bi taldetan berezita egingo dituzte lan batzuk.
   Taldea mugatua izango da.

3. **Saiokaren Metodologia**
   *Uztailaren 9tik - 14.*
   Saiokako taldeak zuzenduko du.
   Metodo hau ezagutzen ez dutenentzat agerpen bat izango da eta ia erabilia dutenen artean, elkarrizketa, kritika, posibilitate berrien eraketa etab.
   Denen esperientziak agertzea eskatzen dute Saiokako taldekoek.

4. **Euskara lehen etapan**
*Uztailaren 2 tik 7 ra.*
Ondarruko, Zubi-Zahar Ikastolako irakasle den Mitxel Kalzakortaren metodoaren agerpena izango da.

5. **Euskara 2. Etapan**
*Uztailaren 2 tik 14 ra.*
Hegaz taldeak, Euskara Lantzen 1, eta argitaratzekoa duen Euskara Lantzen 2-tik ikasgai batzuk aukeratuta saio praktiko bat eginen du. Gainera Euskararen zenbait programa desberdin aztertu eta eztabaidatuko da.
Lan praktiko batzuk egin nahi dira:
Literaturgintza, Bertsolaritza, Hiztegi arazoa, Egiturak lantzea, Haur Literatura.
Inbestigazio lan praktiko asko egin nahi da, hortarako 2, 3, egun izango dira.

6. **Matematika 5. 6. Mailan**
*Uztailaren 2 tik 7 ra.*
Elhuyar taldeak egindako metodoaren inguruan:
esperientzia agerpena
kritika
pedagogi eta konsulta materialen aurkeztea
prestatutako material berriak agertu

Irakasle: Jexuxmari Goñi
Xiriako Uriarte
Mikel Zabaleta

7. **Plastika**
*Uztailaren 2 tik 14 ra.*
Irakasle: Mikel Mendizabal eta Joxe Anjel Lasa.
2 alderdi izango du ikastaldi honek;
1. Goizekoa, metodologia eta hizkuntza bisualaren azalpena.
2. Arratsaldez, tallerrak; buztina, karetagintza, margoak, marrazkia eta abar.

Bi ibilaldi egingo dira ikastaldiaren barrenean; bata Bilbora, bestea Gasteizera.

**8. Zinea**

*Uztailaren 2tik 7ra.*

Irakasle: J. M. Gutierrez, J. J. Franco.

Ikastaldi hau erabat praktikoa da. Bertan pelikula bat nola egiten den azalduko dute, eta egin ere bai.

